

HIZKUNTZAREN ESTANDARIZAZIOA

Euskararen berreskuratzea II

Garabide Elkarte





DVD honetan euskara estandarraren bidearen motibazioak, arazoak eta lorpenak biltzen saiatu gara, prozesu luze horretan protagonista izan zirenei hitza emanez.

Egilea: Garabide Elkartea

Jose Arana, 13. 20540 Eskoriatza. Gipuzkoa.

Tel: 943250397.

www.garabide.org / info@garabide.org

Koordinatzailea: Alberto Barandiaran

Kolaboratzaileak: Julen Arexolaleiba, Miren Azkarate, Andoni

Barreña, Iñigo Iñurrategi, Paula Kasares, Xabier Kintana, Urko Kolomo,

Andoni Mujika, Jon Sarasua, Leire Uriarte, Bea Zabalondo, Koldo Zuazo.

Diseinua:  komunikakzioa

Inprenta: Gertu

ISBN: 978-84-613-6836-5

Lege gordailua: SS-449-2010



ASKE ZARA:

- Lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko
- Lan eratorriak egiteko

BALDINTZA HAUETAN:

- ① **Aitortu:** Lanaren kredituak aitortu behar dituzu, egileak edo baimendunak zehaztutako eran (baina ez aditzera emanez haien babesa duzunik edo haien obraren erabilera hori babesten dutenik).
- ② **Ez merkatarizarako:** Ezin duzu lan hau merkataritza xedetarako erabili.
- ③ **Partekatutako baimen beraren arabera:** Lan hau aldatzen baldin baduzu, edo lan eratorri bat sortzen baduzu, sortutako lana banatu dezakezu soil-soilik baimen honen berdin-berdineko baten mende.



HIZKUNTZAREN ESTANDARIZAZIOA

Euskararen berreskuratzea II

Koordinatzailea: Alberto Barandiaran

garabide
bidagara



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA

Hizkuntza Politikako Zerbitzuordetza
Euzkara Sustatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viscalegia de Política Lingüística
Dirección de Promoción del Euzkera



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON
EMAKUNE BAIKA



AURKIBIDEA

Hitzaurrea.....	6
Hizkuntza mintzatuak, hizkuntza idatziak	11
Estandarraren beharra	13
Euskararen kasua.....	17
Euskalkien sorrera.....	19
Euskalkien prestigioa	21
Euskara batuaren bide luzea	23
Euskaltzaindiaren sorrera	25
Batasunaren aurkakoak.....	27
Akademiaren bidea.....	28
Gazteen bultzada.....	29
60ko hamarkada erabakiorra.....	31
Koldo Mitxelenaen proposamena.....	33
Arantzazuko batzarra.....	34
H-ren auzia	35
Arantzazuko erabakiak	38
Arantzazu eta gero	43
Aditz laguntzailearen erabakia	45
Arantzazukoa neurtzen.....	46
Eta euskalkiak?	51
Euskalkien jatorria	54
Euskaltzaindiaren jarrera.....	54
Batuaren corpusa.....	59
Batuaren ondorioak.....	65
Estandarizaziorako gomendio batzuk	69
Bibliografia.....	72

HITZAURREA

Bitasun bitxi bat kudeatzea dagokigu euskaldunoi, gure hizkuntzaren eta izate kulturalaren norabideaz pentsatzerakoan.

Alde batetik, beharrezkoa dugu arrangura errealista. Euskararen komunitatearen egoerak ematen du kezkatzeko motiborik. Diagnostiko medikua osasunetik urrun dago, eta gutxienez medikutan dabilenaren tentsiotxoari eustea dagokigu. Bizi liteke pozik gaixorik eta tratamenduan dagoena ere, jakina, hori aldarte-hautuen kontua da. Baina ez dezagun errealtatea desitxuratu: ez gaude ondo, eta ez egon gintzekoen ondoen ere. Arlo batzuetan indikadore gorriak keinuka ari dira, beste arlo batzuetan ez dira mamitu jarritako itxaropenak, zenbait alorretan urteak alperrik galdu dira. Desafio zahar eta berri lodi xamarren aurrean dago euskararen komunitatea, eta badira arrazoiak pentsatzeko jauzi kualitatiboak behar direla eskumen, tresna eta estrategia mailan, mende honetan datorkigunari taxuz erantzuteko.

Bestetik, komeni zaigu egin denaren tamainaz ohartzea. Azken bost hamarraldietan euskararen berreskurapenean eta garapenean egin dena handia da. Ametsaren bulkadak sortu duen energia oparoa izan da. Egindako ahaleginak eta lorpenak zerrendatzen hasteak luze jo dezake, baina aski dugu atzera begiratu garbi xamarrarekin begiratzea bidea balioesteko. Pertsonen esparru intimoan, herri-ekimenean nahiz erakunde-ekimenean, ahalegin miresgarri eta emaitza aipagarrien mapa ikustekoa da.

Botila erdi-betearen metaforak ez du ondo biltzen gure egoera. Kontua ez da soilik aukeratzea erdi-betea edo erdi-hutsa ikusi nahi dugun euskararen garapenean botila. Izan ere, botila sorgin honetan, bete dena asko da, eta aldi berean, falta dena, handia. Kontua da mende honetan bere lurrean gutxiengoan dagoen jatorrizko hizkuntza bati dagokion lekua egitea zeregin itzela dela. Eta gainera, botilak zulo txiki bat daukala, betetze-eritmo jakin batetik behera ibiliz gero gehiago husten dena.

Azken hamarraldiotan bakoitzak izan duen posizio politikoaren arabera, batzuk lerra daitezke erakundeei esker 'egin den guztia' azpimarratzera, edota gauden estatuon barruan hizkuntzaren garapenak leku egokia izan dezakeela frogatzeko saiora. Beste batzuk lerra daitezke alderantzizkora, marko poli-

tikoa deslegitimatzen beharretik, hizkuntzaren alorrean egin dena ilun marraztera. Bada, ordea, iraganeko justifikazioak eta hautu politikoen balorazioak baino sakonagotik begiratzeko aukerarik. Euskalgintzaren begiratu beregain batetik, diskurso triunfalista eta justifikatzaileak saihestea komeni zaigu. Horrek ordea, estal diezaguke behar dugun beste ariketa osasungarria: egin den lan itzelaren aitortzea.

Demagun hautatzen dugula egindakoaren pozean oinarritzea, eta horretatik falta denari heltzeko energia sortzen saiatzea, desafioren analisi zorrotzari behar bezain gabe. Ez da aukera bakarra, baina ez da aldarte-hauturik txarrena.

Hamarraldi hauetan egin den guztian, leku berezia dauka euskararen corpusean egindako lanak. Euskararen batasun-bidea eta corpus-garapena oinarritzeko pausoak izan dira, beste pauso asko eman ahal izateko lehengai. Eta bi gako handitan lezio bat eman du corpusaren alorrak. Bata, dibergentziarako indarren gaitetik konbergentzia nagusiarazten asmatu izana. Eta bestea, fundamentua, ganora, maila teknikoa. Hala, XXI. mendean etxean, egunkarian, literaturan eta unibertsitatean erabiltzeko moduko hizkuntza bat daukagu eskura. Baditu arazoak, eta etengabe olibotatzea eskatzen du, baina oinarria jarria dago, eta martxan.

Sentipen bat sortzen da aurreko esaldiak idaztean: esker ona. Euskararen gorputza biltzen, batzen eta lantzen egundoko lana egin duen gure aurreko belaunaldiarenganako aitortzea. Bultzatzaileak, idazleak, estrategak, hizkuntzalariak. Akiulu, idi nahiz inurri. Denen artean egindako aurrerapena guztion ondare dugu jadanik. Asmatu behar genuke hurrengoei sentiarazten lorpenok atzean duten ilusio eta dedikazioaren tamaina.

Alor honetan egindakoak badu nazioarteko dimentsio bat ere. Ez bereziki nazioartekoa izateko berak ezer berezirik duelako, baizik eta egiten dugun ororen dimentsio bat, begiratu bat, angelu bat izan daitekeelako nazioartekotasuna. Angelu horretatik, bai, euskararen corpusean egindakoak ere badu balio bat, herrien plazan ateratzeko.

Nazio linguistikoen plazan, euskararen corpusean egindako ibilbidea baliabide ederra da esperientziak trukatzeko orduan.

HITZAURREA

Euskararen corpus-lanak helduleku asko ditu: etorkizun-ikuspegia izaten asmatu zuen, momentu historikoa usaindu zuen, konbergentzia ariketa egitea lortu du, zorroztasun teknikoa izan du, terminologiak garatzeko adarrak sortzen jakin du... Euskarak egindako bidea ikasketa baliagarria da munduko hizkuntza komunitateen enparantzan. Ez noski euskararen corpusaren bidea eredutzat hartu eta pausoak errepikatzeko. Baina bai erreferentzia positibo indartsu xamar bat izateko. Izan ere, duela bost hamarraldi euskarak zituen desafio bertsuak dituzte une honetan, larriago, munduko jatorrizko hizkuntza askok eta askok. Besteak beste, corpora batzen, gaitzen eta garatzen pausoak emateko premia gorria dute.

Beste hizkuntza komunitate horiei begira truke-lana antolatzeko sistema sortzen ari da Garabide azken urteotan. Hizkuntza garatzeko estrategia orokorretan, corpusaren alorrean, hezkuntzan, hedabideen sorkuntzan, kulturgintzan, familia-transmisioan, helduen alfabetatzean eta gainerakoetan euskararen komunitatearen eta beste komunitate batzuen arteko jakintza-fluxua antolatzen ari da, eta hasierako pausoetan dago oraindik. Gero eta gehiago ari gara ohartzen, lan horretan aurreratu ahala, zeregin aberatsa eta pertinentea dela.

Eta ze gauza bitxia, besterentzat ikasketa izateko irekitzen garenean ikasten dugula askotan gure buruaz ere, angelu berriak irekitako ikuspegitik. Ikasketa honetarako bidea eta materiala eskaintzen digu Alberto Barandiaranek, jario zehatz bezain egokian, galdetzaile eta ulertzaile sen handiz egindako sintesi honetan. Daukagunaren bidezidorrak ezagutzeko gonbitea dakar.

Jon Sarasua



EUSKARAREN BERRESKURATZEA: HIZKUNTZAREN ESTANDARIZAZIOA

Hizkuntza mintzatuak, hizkuntza idatziak

Sorreran, hizkuntza guztiak hizkuntza mintzatuak izan dira. Ahoz aho eta belaunaldiz belaunaldi, gurasoek seme-alabei transmititu diete ehizaz, abelazkuntzaz edo nekazaritzaz zekiten guztia. Abereak nola gobernatu, esku lanak nola egin, hurkoekin nola komunikatu, zeri beldurra izan, zer maitatu.

Baina, historiaren une zehatz batean, transmisio hori ez zela nahikoa ohartu zen gizakia. Zibilizazioak sortu ahala, gizarte antolamendua gero eta konplexuago bihurtu zen, eta konplexutasun hari bilatzen zitzaizkion azalpenak gero eta zabalagoak eta osatuagoak zirenez, orduko gizon-emakumeek ikusi zuten ahoz ahoko eta etxe barruko transmisio



hori ez zela aski. Gainera, mundua eta bizitzaren kontzientzia hartu ahala, jakintzak eta sentimenduak seme-alabei edo ingurukoei ez ezik, harago ere helarazi behar zirela ulertu zuten. Gerorako eta gerokoentzako utzi behar zirela, ondare gisa. Beste ahots bat behar zutela, alegia. Eta, horretarako, ezinbesteko ikusi zuten arau batzuk ezartzea eta arau horiek guztiek ulertzeko moduan ematea. Eta idazketa sortu zuten.

Hasieran marrazkiak izan ziren, pikto-gramak. Esku bat, begi bat, etxe bat, eguzkia. Ondoren etorri ziren ideogramak, marrazki abstraktuak. Irudi eta hieroglifoen bidez, egunerokoarekin lotutako kezak eta ideiak betikotu zi-

tuzten Txinan, Mesopotamian, Egipton... Maiak eta aztekak ere horiexez baliatu ziren. Horrela, abereen kopuruak eta uzten salmentaz lorturiko diru sarrera eta irteera oharrak jasota geratu ziren; horrela, legeak finkatu ziren; horrela, hildakoen izenak hilobietan agertu ziren. Idazketaren bidez transmititu ziren zibilizazio guztietako jainko-jainkosen aldeko otoitzak, poeten bertsoak, bidaiarien istorioak, jakintsuen irakaspenak, herriaren narrazioak eta kondairak.

Baina K.o. 1200. urte inguruan, ekialdeko herri bat, feniziarrek, Mediterraneoan zehar egiten zituzten salerosketarako zerbait gehiago behar zutela ohartu ziren. Zerbait zehatzago. Eta

esaldiak ahoskatzean egiten ditugun soinuak eta hitzak irudikatzen hasi ziren. Eta horrela alfabetoa sortu zuten. Lehena. Geroztik, munduko giza talde gehienek feniziarrek asmatutakoa egokitu besterik ez dute egin. Hortik sortu zen latindar alfabetoa, esaterako.

Baina hizkuntza guztiak ezberdinak dira, eta haien soinuak ere halatsu. Horregatik, jatorrizko alfabeto hura hainbat aldiz eta hainbat eratarata moldatu zen toki bakoitzaren hizkuntzaren beharrak asetzeko. Horrela sortu ziren gaur egun munduan dauden alfabeto ezberdinak. Txinatarrek, japoniarrek, arabiarrek, juduek, hinduek, georgiarrek edo armeniarrek, besteak beste, beren jatorrizko alfabetoei eutsi diete, baina herri gehienek latindar alfabetoaren ereduari jarraitu diote gaur arte.

Alfabeto nagusiak zibilizazio botere-tsuenek ezarri zituzten, txanpona, erlijioa eta kultura ezarri zuten gisa berean: indarrez gehienetan. Eta alfabeto horrek, hizkuntzaren soinuak irudikatzeko konbentzioak, gehienetan zerikusi gutxi zeukan bertako hizkuntzaren beharrek, ez baitzegoen horretarako sortua. Hori gertatu da, nabarmen, Hego Amerikako hainbat hizkuntzarekin, eta arazo bera izan zuten euskaldunek. Pirinioen hegoaldean Espainiako grafiaren arabera idazten hasi ziren, eta Pirinioen iparraldean, aldiz, Frantziako grafiaren arabera. Horrela sortu ziren dikotomiak, gauza bera idazteko: *etche* Ipar Euskal Herrian eta *eche* Hegoaldean; *çazpi / zappi*; *guiçon / guizon*, eta abar.

Horrek maiz muga arbitrarioak eta irrealak ezarri ditu hizkuntzen artean. Hizkuntza bat idazten hasita, beraz, kontuan hartu behar da hiztun guztiak ez dutela berdin ahoskatzen. Eta garbi eduki beharra dago idazketa, hizkuntza mintzatuaren errepresentazioa dela, eta horretarako akordio, konbentzio edo hitzarmen bat gauzatu behar dela hizkuntza bakoitzean. Eta oso garrantzitsua da hizkuntza baten sistema ortografikoa adostean beregain egitea, menpekotasun barik beste hizkuntza zehatz batekiko.

Estandarraren beharra

Begira diezaioگون euskarari. Hizkuntzalariak ziur dira euskara bat eta bakarra zela duela hamabost bat mende, dela herri bakar bateko jendeen hizketa molde zelako, dela hainbat herritako hiztunen hizkeren arteko *koiné* edo hizkuntza komuna zelako. Mendeetan atzera egin ahala behintzat, euskara egiteko moduen arteko ezberdintasunak gero eta txikiagoak direla konturatzen gara. Hau da, antzina ez ziren agertzen gaur egungo euskalkien artean lexikoan edo fonetikan ditugun aldeak.

Hori hizkuntza guztietan gertatzen da. Zuhaitz bat bezalakoak dira. Etengabe

Idazketa hizkuntza mintzatuaren errepresentazioa da, eta horretarako akordio edo hitzarmena gauzatu behar da.

adar berriak sortzen zaizkie, gero eta luzeagoak eta enbor nagusitik gero eta urrunagoak.

Aberastasun hori ahulezia bilakatu da ezberdintasunak alderdi komunen aurretik jarri izan direnean. Hori dela eta, munduko estatu eta nazio guztiak aspaldian ohartu ziren hizkuntzak bizirik eta sendo jarrai zezan, enborra zaindu beharra zegoela. Eta ohartu ziren, era berean, hizkuntza batek ez zuela etorkizunik irakaskuntza, kultura eta betebeharrak ofizialetatik baztertzen baldin bazuten. Horregatik, behin garapen maila batera helduz gero, estatuan antolaturiko herri guztiek hizkuntza batua, hots, idatziaren

beharra sentitu dute. Horretarako, idazkera propioa sortu behar izan dute, edo aldameneko beste herri batena eskuratu edo moldatu.

Izan ere, hizkuntza bat idazten ez denean bere txokoan ahoz iraun dezake, familia giroan, herrietan, auzo mailako giza harreman hurbiletan beharbada, baina gero eta zokoratuago gelditzeko arriskua dauka. Gainera, zibilizazioen arteko harremanak hedatu ahala, era horretako hizkuntza landu gabeak ahuldu eta desagertuz joan ohi dira. Galdu diren hizkuntza ia guztietan horixe gertatu da: estatu edo botere politikorik gabe, ez dute ofizial bilakatzeko aukerarik izan. Eta hizkuntza hegemonikoaren indarren menean gero eta azpiratuago gelditu dira, azkenean ahuldu eta, erabilerarik ezagatik, desagertu eta hil arte.

Azken urrats hori gerta ez dadin, jendearen nahia, eta are borondate politiko hutsa ere, ez da beti nahikoa izan.



Irakaskuntzan, kulturen eta betebeharen ofizialetan baliagarri izateko, hizkuntzak, erakunde politikoaren kanpoko babesaz gainera, bere barruan ere baldintza batzuk bete behar ditu, hots, eredu estandarra behar izan du, tokian tokiko ezberdintasunen gainera. Horretarako, idazteko arauak finkatu behar izan dira, eta horretarako hizkuntzaren beraren enberraren bila aritu eta muina

aurkitzeko lana egin behar izan da. Dialektoen sorburu izan den muin horren gainean eraiki izan ohi baita estandarra, hizkuntza batua, mundu guztian. Hori egin zuten, modu batean zein bestean, gaztelaniak, ingelesak, alemanak, frantsesak, arabierak, italiarrek edo txinerak, adibidez. Gaur egun, ezinbesteko urratsa da hori, etorkizuna ziurtatzeko.




EUSKARAREN KASUA

"Euskararen egiazko misterioa iraupena da, ez jatorria", idatzi zuen Koldo Mitxelenak. Hizkuntzalari eta filologo askok begiratu diote euskararen berezitasunari. Bera da, seguruenik, Europako hizkuntza zaharrena, nolako jatorria duen oraindik argi ez dagoen arren. Gaur egungo adituen artean aski onartuta dago euskararen aurreko hizkuntza, aitzin euskara edo, erromatarrek iritsi baino askoz lehenago bertan mintzatzen zen hizkuntza zela. Hura gaur egun baino toki zabalago edo gehiagotan hitz egiten zen: Akitania aldean, Pirinioen ekialdean eta, seguru asko, Ebroren alde bietan ere. Inguruko beste hizkuntzekin duen kidetasunik,

eta nonbaitetik heldu zen ala bertan garatu zen mintzamoldea ote den ez dakigu ordea. Baina Euskal Herria deitzen den inguruan duela bi mila urte baino gehiago euskaraz hitz egiten zela ez da dudarik.

Nolanahi ere den, Mitxelenaren ustez iraupena bera zen interesgarriena eta harrigarriena. Nola eutsi zion erromatarren kulturizazio indartsuari, kristautasunaren asmo berdintzaileei, bisigodoen eta mairuen oldeei, Erdi Aroko administrazio erromanikoei, berpizkudeari, erromantizismoari, modernitateari... gaur arte.



Iraupen hori are harrigarriagoa da kontuan hartzen baldin badugu historian zehar hizkuntzaren kontrako tentsioak oso handiak izan direla. Ferdinand de Saussure hizkuntzalari suitzarrak esaten zuen hizkuntzen barruan aldi berean bi indarrek dihardutela: horietako batzuk bateratzaileak dira, hots, hizkuntzaren batasunari eta berdintasunari eusten diotenak, eta banatzaileak bestek, hizkuntza hausten eta dialektoak sortzen dituztenak. Egoera normalean, indar horiek orekan egon ohi dira, baina Euskal Herrian indar banatzaileak izan dira nagusi. Horregatik

agertzen dira hizkera asko, itxuraz ezberdin samarrak.

Euskal Herriak, hau da, euskararen herriak, 270 bat kilometro ditu ekialdetik mendebaldera, berrehun bat iparraldetik hegoaldera. Lurraldearen inguru zabaletan, bereziki hiri edo gune populatuenetan, ia beti beste hizkuntza batekin bizi izan da euskara, dela iberiera, dela latina, hizkuntza erromanikoak, gaztelania edo frantsesa. Hori ez da oztopo izan herri honetako lehen hizkuntza nagusia, gehienetan bakarra, euskara izan zedin. Baina hain lurral-

de txikian zortzi dialekto eta hogeita bost azpidialekto zenbatu zituzten XIX. mendean, sei dialekto eta hamalau azpidialekto direla erabaki dute azken ikerketek...


Euskalkien sorrera

Euskararen barruko aniztasun hori oso adierazgarria da. Lehenagoko aitzin euskara hartatik, denboraren poderioz, eta banaketa politikoak zirela medio, euskalkiak sortzen hasi ziren itxuraz Erdi Aroan, data zehatzik jar-tzea zaila den arren. Kontuan hartu behar da erromatarren inperioa erori eta gero bisigodoak eta musulmanak ahalegindu zirela lurraldea menderatzen, azkenean Iruñeko eta Nafarroako erresumak sortu ziren arte. XIII. mendetik aurrera, euskal lurraldeak Nafarroako, Gaztelako, Frantziako eta Ingalaterrako erregeen ondasunen artean bereizita zeuden, eta XVI. mendetik aurrera Espainiako eta Frantziako estatuen administraziopean zatiturik gelditu ziren. Hego Euskal Herriko lurraldeak lau probintziatan bereizi zituzten XIX. mendean, eta gaur egun hiru administraziopean dago Euskal Herria, nork bere araudia, bere hizkuntza politika eta bere antolamendua dutela.






Historia luze horrek bereizi eta zatitu egin zuen hizkuntza. Frantziako ikerlari batek, Louis-Lucien Bonapartek, hizkuntzaren dialektoak ikertu zituen XIX. mendean, eta zortzi zirela ondorioztatu zuen: bizkaiera, gipuzkera, hego nafarrera garaia, ipar nafarrera garaia, mendebal nafarrera beheera, ekialde nafarrera beheera, lapurtera eta zuberera. Berriki, Koldo Zuazo hizkuntzalariak sailkapen hori berrikusi eta gaurko euskalkiak zuberera, nafarrera, nafar-lapurtera, ekialdeko nafarrera, mendebalekoa, eta erdialdekoa direla ondorioztatu du. Hori ez ezik, hamalau azpieuskalki daudela erabaki du, eta tarteko hizkera ugari.

Euskal Herrian hizkuntzaren aurkako indar banatzaileak oso handiak izan dira, horregatik agertzen dira hizkera asko

Halere, beste sailkapen posible batzuk ere egin litezke. Luis Villasante euskaltzainburuak behin esan zuen euskararen barruan dialektoak baino euskararen barruan dialektoak baino gehiago, "isoglosa lerroak" zeudela. Hau da, hizkerari lotutako berezitasunak nonahi. "Herri bat, ezaugarri zehatz baten arabera, hizkera bati lotuta badago ere, aldi berean beste ezaugarri batek beste hizkera batekin lotzen du", idatzi zuen frantziskotarrak. Hots, zaila zela sailkapen hertsia egitea.



EUSKALKIEN BANAKETA GAUR EGUN

-  Mendebaleko euskalkia
-  Erdialdeko euskalkia
-  Nafar euskalkia
-  Nafar-lapurtar euskalkia
-  Zuberotar euskalkia

Euskalkien prestigioa

Hizkuntza eta hizkera guztiak berdinak dira mintzatzean, baldin eta hizkuntza bati eskatu beharko litzaizkiokeen betebeharrak konplitzeko gai badira: bereziki, gizakien arteko komunikaziorako baliagarriak izatea. Baina hizkuntza batzuek bestetzuek baino prestigio handiagoa izan dute, badute, eta izango dute. Eta hori nabarmen loturik dago kultura erabilerarako gaitasunarekin. Zenbat eta gehiago landua eta idatzia izan, orduan eta prestigio handiagoa du hizkuntzak. Euskararen kasuan, ia XVIII. mendera arte, bereziki bi hizkerek izan dute tradizio literarioa: lapurterak eta gipuzkerak. Hots, nafar-lapurterak eta erdialdekoak. Hori erabakiorra izan zen,

gero, euskara estandarren oinarriak jartzea erabaki zenean.

Gauzak horrela, XX. mendearen erdialdean, hainbat euskaltzale ohartu ziren hainbeste euskalkiren berezitasun eta aniztasun hori, hizkuntzalari eta ikerlari-entzat erakargarria ez ezik gorai-patze-ko modukoa izan zitekeela, baina hizkuntzaren iraupenerako arrisku larria zela. Gizartea garatzen ari zen abiadura kontuan hartuta, zenbait arau, hau da, oinarrizko eta gutxieneko batasuna ezinbestekoa zela, baldin eta behar berrietara moldatzeko moduko hizkuntza nahi bazuten. Eta bazekiten egin-behar hori ezin erabaki zitekeela egun batetik bestera.

Haiek egin zuten batasunaren bidearen azken zatia, baina bide horretan ez ziren lehenak izan, aurreko mendeetan ere, kulturgile eta literaturagile askok kezka bera izan baitzuten.



EUSKARA BATUAREN BIDE LUZEA

Euskara estandarrekiko ardura ia euskaraz idazten hasi ziren une berean piztu zitzairen idazleei. Joanes Leizarraga elizgizonak *Testamentu Berria* itzuli zuen XVI. mendean, eta sarreran bertan hitzetan jarri zuen idazle askoren gogoia: Norentzat idatzi? Zein euskara erabili? "Bat bederak daki Heuskal Herrian kasi etxe batetik berzera ere mintzatzeko maneran zer diferentzia eta dibersitatea den". Horregatik, beste hizkuntza bat *asmutzen* ahalegindu zen, ahalik eta euskara orokorrenaren bila. "Lengoajeaz den bezanbatean, ahalik gehiena guzietan adieraziteari jarreki izan gaitzaitza, eta ez xoil edozein lekhu jakineko lengoaje

bereziri". Alegia, ahalik eta jende gehienek ulertzeko moduko euskara zuen helburu. Estandarra.

Leizarragak ez zuen idatzi hitz egiten zuen bezala, idazkera literarioa obratu nahi izan zuen, baina horretarako bere inguruko mintzaireri begiratu zien. Lapurterra, behe-nafarrera, zuberera. Joera hori zen logikoena, Euskal Herria handiegia zelako garaiko euskaldunentzat. Ez zegoen administrazio komunik, ez zegoen lotura iraunkorrik edo harreman sare trinkorik, eta gehienez ere nork bere lurraldea zuen erreferentziazat. Horregatik, Leizarragak Ipar Euskal He-



rriko euskarak batu zituen. Baina hor badago lehen ahalegina euskararen inguruan jendea elkartzeko.

Kezka bera zerabilen Manuel Larramendi jesulagunak berak ere (1690-1765). Ongi antzeman zuen garaiko euskaldunengan hizkuntzaren kontzientziarik eza: nork bere euskara zuen ontzat, eta besteak, berriz, kaskartzat. Larramendik hori pasioaren ondorioa zela idatzi zuen, eta "bi ontza arrazoi eta adimenez" sendatzen zela. Euskararen aldeko apologista sutsua izan zen, eta euskarazko lehen gramatika eta hiztegi bat egin zuen. Eta horretarako zer aukeratu eta euskalki guztietako hitzak sartzea erabaki zuen. Erdal hitzen ordainak euskarari aurkitu nahi zituen jesuitak, erdarara jo gabe. Iruditzen zi-

Foruak galtzearekin batera hizkuntzari berebiziko garrantzia ematen hasi zitzaion, eta akademiaren asmoa forma hartzen hasi zen

tzaion horrela euskara bera aberastu ez ezik, euskalki batekoek besteakoak errazago ulertuko zituztela. Euskaldunek elkar ulertzea, hori zen lehentasuna. Bere hiztegiaren ere garaiko hitz teknikoak euskaraz ematen ahalegindu zen, eta neologismoak sortu zituen. Euskara "noranahiko" nahi zuen.

Handik urte batzuetara, beste apaiz batek, Juan Antonio Mogelek, garbi utzi zuen barru-barruan zeraman batasunaren kezka. Bera bizkaitarra zen, mendebalekoa alegia, baina argi ikusi zuen euskaldun guztientzako moduko hizkuntza estandarra egitekotan, erdialdera begira jarri beharra zegoela, gainerakoentzako errazena hori zelakoan. Eta erdialdeko euskarari, Gipuzkoa erdialdean hitz egiten zen horretan idazten hasi zen. Oinarrian, euskal hitzunez elkarrekiko zuten mesfidantza leundu nahi zuen. "Bada atsekabe ematen didan beste gauza bat, au da entzutea euskaldunak gaizki esaten ta auzitan bezela batzuek besteekin. Giputzak entzuten dutenean bizkaitarren hizkera, bereala abiatzen dira esaten au dek euskera zatar, astun ta gogaitkarria. Nork entzun belarriak estaldu gabe? Bizkaitar askok —eta erri guztietakoak— esango dizute giputzak dirala labañak beren izkeran,

emakumen mingain zorrotzentzat ona dala, Bizkaikoa gizontsuagoa”.

Baina Mogel ohartu zen euskalkien artean ez zegoela horrenbesteko alderik. Halako hitz batzuk, lexikoa alegia, eta aditz-flexioak, askoz gehiago ez. Eta grafia ere bai, noski. Idazteko modua. Mogelek hiztegiño bat egin zuen hain zuzen ere bizkaitarrek uler zituzten gipuzkoarren hitz batzuk.

Garai berean, Ipar Euskal Herriko idazle batzuek ortografia arautzeko lehen urratsa egin zuten. Euskara idatziak, edo, hobe esanda, euskal literatura idatziak, Ipar Euskal Herrian eman zituen lehen urratsak, eta Ipar Euskal Herrian bide joria egin zuen. Baina bertako idazkera estilo anabasa zen oraindik, eta horrek, eta frantsesaren eraginak, are gehiago urruntzen zituen mendebaleko balizko irakurleak. Martin Duhaldek, *Meditazioneak* liburuan (1809), urrats aitzindaria eman zuen grafian garrantzi handiko berrikuntzak egin zituenean. *Gue* eta *gui* baztertu eta *ge* eta *gi* erabili zuen; *ç* ere gaitzetsi zuen *z* baliatzeko, eta *ss* utzi eta *ts* ezarri zuen. Garai bereko beste idazle batek, Martin Darrigolek, *v* zokoratu eta *b*-z idazten hasi zen, eta *y*-ren ordez *i* edo *j* proposatu zuen. Frantsezeko *ou*-ren ordez, *u* soila. XX. mendeko estandarizaziorako oso baliagarriak izan ziren proposamen horiek.

Grafia berriaren eragina Jose Frantzisko Aizkibelen bidez iritsi zen Hego Euskal Herrira. Eskribauak ortografia batuaren eta akademiaren beharra ikusi zuen

berehala, eta, XIX. mendearen amaieran, hiztegi estandarren proiektuari ekin zion.

Euskaltzaindiaren sorrera

Batasunaren aldeko ahotsak gero eta gehiago ziren. Liburu argitalpenak ere gora zihoazen, eta ia euskalki guztietan gainera. XIX. mendean zehar, erromantikoek munduko hizkuntza eta herri txikietan jarri zituzten begiak, hor ohitura eta kultur eredu birjinak topatuko zituztelakoan, eta euskara eta Euskal Herria Europako hizkuntza eta herri interesgarrietakotzat jo zuten. Wilhelm Humboldt, Victor Hugo edo hizkuntzalari alemaniarren interesak hemengo intelektualen jakin-min eta kontzientzia ere iratzarri zituen eta, foruen abolizioak ekarri zuen galtze sentimendu handiarekin batera, hizkuntzari berebiziko



garrantzia ematen hasi zitaion. Eta akademiaren asmoa forma hartzen hasi zen.

Urrats hori ez zen berehalakoa izan. Erromantikoen eraginez euskal Pizkundera mamitu zen lehendabizi, Lore-Jokoak herriz herri hedatu ziren gero, Eusko Ikaskuntza kultur erakunde sortu zen azkenik. Kultur berreskurapenerako gogoia zegoen, batzuetan folkloretik abiatuta, baina hizkuntza, euskara alegia, lehen aldiz erdigunean jartzeko gogoia antzematen da. Hitzetatik ekintzetara pasatzeko, nolana ere, ezinbestekoa zen belaunaldi aldaketa. XX. mendearen hasieran, aurrekoen erromantizismotik pixka bat aldentu eta asmo positibistagoak edo zientifikoagoak lehenesten zituen belaunaldiak egingo zuen azken urratsa. 1918an eratu zen Euskaltzaindia hartan, hizkuntzalariak ez ezik liburu zaharrak, hezurak, agiriak, musika, herri literatura eta antropologia biltzen eta ikertzen aritutako adituak zeuden. Jakintza zabaleko gizonak denak. Hiru mende lehenagoko euskaltzaleek eskatzen zituzten jakintsuak hor zeuden.

Politikaren ikuspegitik ere ez zen garai txarra egitasmoa martxan jartzeko: Sabino Arana nazionalistaren ondorengoak nagusi ziren Bizkaian, eta beste euskal lurraldeetan indar handia zuten. Babes politikoa, itxuraz, ziurtatuta zegoen, eta sabindarrek, gainera, hainbat proposamen egin zituzten idazkera batzeko, neologismo



Resurrección María Azkue

ugari eta grafia iraultzailea besteak beste. Iradokizunen oinarrian garbizalekeria zegoen, euskara hizkuntza erabat isolatu eta bakan bilakatzeko gogoia. Latinetiko mailegu ugari gaitzetsi zituzten, eta herriaren mintzatzeko maneratik erabat urrun zegoen sasi hizkera sortu zuten horrela. Hitz berri asko gaur egun arte iritsi dira hala ere, erabat arruntak diren izenak tartean: Jon, Miren, Ander, Jasone, Kepa, Endika...

Sabindarrak proposamenak ezartzen ahalegindu zirenean, ordea, kontrako erreakzioa eragin zuten, eta kalapita eta eztabaida gogorrak sortu ziren aldeko eta kontrakoan artean. Euskararen akademiaren hasiera, horregatik, ez zen erraza izan, baina sortu, sortu

egin zuten halere. Lehen erabakia, erakundearen izena bera izan zen. Eta hor, lehen unean berean, *Euskaltzaindia* izenarekin, hautu linguistikoa egin behar izan zuten. Bost, gutxienez: *eus* eta *euz* hitzen artean *eus* erabaki zuten; *ker*a eta *kara* artean, *kara*, beraz *euskara*; *euskel* / *euskal* artean *euskaldun* hobetsi zuen, eta *zain* / *tzain* / *zai* artean, *euskaltzain*. Azkenik, *di* / *go* eztabaidari ere bukaera eman zion: Euskaltzaindia. Aukera gehiago ere izan ziren, noski: Eltzainbatz, Euzkerabaltza, Euskaltzaingoa...

Sortu eta berehala, hiru helburu jarri zizkion akademiak bere buruari: ortografia arautzea, hiztegia zehaztea eta Euskal Herri osorako literatura hizkera eraikitzea. Hizkuntza estandarra sortzea, azken finean. Bere arautegiaren 6. artikulua ere horrelaxe zioen: "Ekingo du euskalki ororen odolez azitako euskal-eredu bat gertutzen, itzez, itz-yoskeraz ta idazkeraz al bait erabatetsuena, euskaldun guziak idatz-irakurketan erabiltzekoa".

Hori bideratzeko txosten bat baino gehiago egin bazen ere, berehalakoan erabaki sendorik ez hartzea hobetsi zuten euskaltzainek. Ez omen zen garaia. Euskaltzainburuak berak, Resurreccion Maria Azkuek, horrela aitortu zuen: "Nik goitzo deritzayot 'langue unifié' ortaz gure lanak asteari". Iritzi bat finkatzen hasia zen, hala ere: gipuzkera eta lapurteraren arteko nahasketa bat egitea. Ez zen iritzi berria, ikusi dugu lehenago ere

horren aldekoa izan zela bat baino gehiago, eta neurri batean logikoa zen, bi horiek zirelako gehien landutako euskalkiak. Hori nahi zutenak ez ziren gehiengoala hala ere, eta horregatik ez zen erabakirik hartu. Garaia, baina, etorriko zela uste zuten.

Batasunaren aurkakoak

Nolanahi ere, interesgarria da ikustea zein zen batasunaren aurkako iritzia, hurrengo hamarkadetan aldekoek iritzi horiek borrokatu behar izan zituztelako. Nagusiki bi ziren kontrako arrazo nagusiak: alde batetik, hizkera eredu bakarra aukeratuz gero euskalkietako aberastasuna galtzen zela, eta hizkuntza bera murriztuko zela; bestetik, batasunerako euskalki jakin bat aukeratuz gero, jaiotzaz euskalki hori ez zutenek nekez lortuko zutela etorri eta jario nahikoa, eta lotsak eta konplexuak sortuko zirela. Lehen eta bigarren mailako euskaldunak sortuko zirela, alegia.

Jean Etxepare mediku eta idazleak eskatu zuen "erokeriak" bazterrera uzteko. Bizpahiru menderen buruan berdintsu hitz egingo zutela euskaldunek, bai berderen elkar ulertzeko moduan, eta ez zegoela horregatik ezer asmatu edo sortu beharrik. Orixe idazle handiak ere ez

zuen batasunaren beharra inon ikusten, eta idazleari eman nahi zion askatasuna nork bere euskalkia eta bere idazteko manera hauta zezan. Askatasun literario erabatekoa proposatu zuen. Berak bururaino eraman zuen iritzi hori, eta argitaratutako liburu bakoitza euskalki ezberdin batez egin zuen.

Garaia ez zen onena gauza handirik erabakitzeko, ez. Ez zegoen nahiko irizpide linguistikorik, eta kontrako indarrak handiak ziren. Ramón Menéndez Pidal Espainiako hizkuntzalari handiak Bilbon eman zuen hitzaldi sonatu bat, Euskaltzaindia jaio eta gutxira. Bertan esan zuen sortutako hizkuntzek ez ohi zutela arrakastarik, hizkuntza gizar-tearen asmakizuna zelako, "fenomeno naturala" berak esan zuenez. Horregatik, gramatikoen artifizioak gaitzesten zituen. Ez zuen, aurkako ia guztiek bezala, aukerarik eskaintzen, hala ere. Edo bai: gaztelania eta frantsesa erabiltzeko gomendatzen zuen. Iragana argitzeko eta ikertzeko euskara erabiltzea ez zuen gaizki ikusten, baina irakaskuntzan, hedabideetan, ikerkuntzan, zientzian eta kulturaren esparruetan, hizkuntza zaharra erabiltzea umekeria zela uste zuen. Logikarik gabeko ahalegina. Zentzurik ez zeukan ekimena. Zergatik esan euskaraz —aldarrikatzen zuen— Europako kultur hizkuntza handietan gauza bera hobeto adieraz zitekeena?

Iritzi horrek, hizkuntza txikiak salbatzea ez zuela merezi, indar handia izan zuen XX. mendearen hasieran, eta Miguel Unamuno pentsalari eta filosofo

bilbotarrak ideia bera hartu, eta urrutirago jo zuen: utz iezaiozue euskarari heriotza goxoan desagertzen. "Euskal kultura gaztelaniaz edo frantsesez egin da beti. Euskaraz ezin da unibertsaltasunaz pentsatu. Eta euskal herriak, unibertsaltasunerantz jo izan duenean, espainolez edo frantsesez egin du".

Mezu nagusia hauxe zen: euskarak ez du gauza jasoetarako balio. Jarrera hori uste baino sakonago geratu zen hainbaten gogoan, eta uste baino gehiago kostatzen zen erabat uxatzea.

Akademiaren bidea

Euskaltzaindiak, hala ere, bere bideari jarraitu zion. Urrats txikitan, baina aurrera. Neologismo edo hitz berriekin zer egin, horra beste kezka nagusia. Guztiek garbi zuten gizartea modernizatu ahal hitz berriak beharko zirela, baina ez zegoen garbi nondik jo behar zen. Eta, beste behin, erabakirik hartu gabe utzi zuen gaia: idazleek erabakiko zuten. Alfabetoa, behintzat, zehaztu zuen.

1920ko urtarrilaren 8ko batzarrean erabaki zuen euskal abezea zein izango zen. Bertan ez ziren *c*, *q* edo *v* letrak, eta bai ordea *ü*, *ts*, *tx* eta *tz*. Baita *h* ere. Orduan jada baziren hor benetako arazoa ikus-



50eko hamarkadan, jende gazteak presa zeukan, kulturarako hizkuntza egokia nahi eta behar zuen

ten zutenak. Piarres Lafitte apaizak gogoratu zuen *h* hasperenaren marka zela, ekialdeko euskalkietan bizirik zegoela, eta gauza jakina zela beste euskalkietan galdua zela. "Euskarak bere-bereak dituen hasperenak gaitzetsi beharrean, zaintzen ahalegindu behar genuke. Euskara batzea ez dadila izan, otoi!, euskara galtzea. Zabal ditzagun euskalki batzuetako onurak besteetara".

Baina horixe izan zen, orduan, XX. mendearen hasieran, batasunari begira

aurrerapen bakarra, ortografia. Zergatik? Koldo Zuazo hizkuntzalariak dioenez, alde batetik ez zegoelako behar bezain garbi euskararen eta Euskal Herriaren osotasuna; nork bere herrialdea eta, gehienez ere, Pirinioak bitarteko alderdia zeukalako ikusmiran. Bestetik, euskara ahul zegoelako. Hizkuntza oraindik ez zen lehenasuna, euskaltzaleen artean ere gehienak erdaraz baliatzen zirelako. Euskaltzaindiaren bilerak ere erdaraz egiten ziren!

Laster piztu zen garra, ordea. Testuingurua aldatu eta kontzientziak astindu zituzten eragileak agertu zirenean, hain zuzen ere. Baina topiko eta aurreiritzi ugari gainditu behar izan ziren bidean.

Gazteen bultzada

Euskal kulturean 30eko hamarkadan er-namuindu ziren kimuak, Euskaltzaindia ez ezik euskal literatura eta euskarazko irakaskuntza eta komunikabideak sustatu zituzten gogoak, 1936ko altxamendu faxistak erre zituen. Gerrak zeregin horietan aritutako kide asko hil, atxilotu edo erbestera bultzatu zituen, eta gerra ondoko diktaduraren giroan, euskararekin lotutako ekimen ia oro debekaturik egon zen. Basamortua, bezaraz. 50eko hamarkadan, Euskaltzaindia ia jardunik gabeko erakunde hila zen, elkarte pribatu bateko lagun taldea. Euskal Herria, hala ere, borborrean zegoen, industrializazioaren ondorioz gazteria sukarrak hartuta, kiratsa zerrion erregimen politikoaren kontra, politikoki ez ezik, kulturalki ere egiteko beharrak sututa.

Borroka politikoaren baitan herriaren berreskurapenak garrantzi handia hartu zuen, eta horren oinarrian euskarak egon behar zuelako ustea nagusitu egin zen diskurtso askotan. Hainbat eragile eta intelektual hain zuzen ere euskara ikusten hasi ziren herri kontzientzia pizteko giltzarri nagusi gisa. Eta orduan zegoen euskarak ez zuen horretarako balio. Mitxelenak ondo esan zuen, larre hizkuntza kale hizkuntza bilakatu beharra zegoela, eta horretarako "garo-usaina" zertxobait galtzea nahitaezkoa zela. "Kaletarrak ere euskaldun gera, batzuek beintzat, ta zori gaiztoz edo zori onez,

kaletarrok gero ta gehiago gallentzen ari". Kaletarrak eta baserritarrak kontrajartzen zituen hizkuntzalari handiak, hain zuzen ere baserritarrak, nekazariak alegia, izan zirelako historikoki euskarari eutsi ziotenak. Eta euskaltzale askoren buruan baserri giroa, herri giroa alegia, hura zen euskararen gordelekua, garbitasunaren paradisua, birjintasunaren erredua.

Gero eta gehiago ziren, hala ere, horrela segituz gero euskara galbidean zela uste zutenak. "Gure euskal hizkuntzak heriotzeko zigorra dauka gainean irratia, he-dabideak, eskola, antzerkia edo zinemarako sarbidea debekatzen badiote" idatzi zuen Justo Maria Mokoroak.

Horregatik, *normalizazio* hitza entzuten hasi zen. Premia larriz ikusten zuten batzuek gainera. Gabriel Aresti poetak berrogei urteko bizitza kalkulatu zion euskarari, ordura arteko bidetik jarraituz gero. Denboraren kontrako lasterketa eroa zela sinetsita zegoen. Eta jende gazteak presa zeukan. Kulturearako hizkuntza egokia eskatzen zuten, "munduan erabiltzen diren giza adimenaren ezaupide guztiak ikasteko, irakasteko, adierazteko" moduko hizkuntza alegia. Horregatik, "egin daitekeena egin, eta ezin daitekeena ahaztu" horixe nahi zuten, ez besterik. Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi* idazle eta hizkuntzalariak hiru hitzetan laburbildu zuen egin zitekeen hura: euskara gaitu, batu eta osatu.

Hainbat gazte proposamenak egiten hasi ziren han eta hemen. Federico Krutwig

politikari eta idazlea izan zen horietako bat. Berak aldarrikatu zuen ozenenik euskara kulturaren esparrura zabaldu beharra. Eta, horretarako, tradizio idatzi gehien zeukan euskalkia hautatzera deitu zuen: lapurtera klasikoa alegia. "Euskararen batarzuna eratzekotz, gehien irasten den hizkalkia onhartu behar dugu, ez gehien mintzatzen datekena, literatura hizkuntza batuak, lehenez irakhurtzekotz baitira".

Garbi dago Krutwigen asmoa asko urruntzen zela hizkera bizitik, hiztunendako zeharo arrotza baitzen XVII. mendean Saran, Ziburun eta Donibane Lohizune inguruan idatzitakoaren antza izan nahi zuen euskara hura. Horregatik, bere proposamenak ez zuen arrakastarik izan. Baina gaia behintzat mahai gainean jarri zuen. Hizkera estandarra eskatu zuen lpar zein Hego Euskal Herriko euskaldunentzat, eta literatura tradizioa aldarrikatu zuen.

Bi ideia horiek bigarren bultzatzaile nagusiarengan ere aurkitzen dira. Txillardegik idazle euskaldun berria zen, Krutwig bezala, eta bere onetik ateratzen zen euskaraz idazteko han eta hemen grafia eta modu ezberdinak erabiltzen zirela ohartuta. Horri "anarkia" deitzen zion berak. Beraz, horrekin amaitzeko, batasuna ezinbestekoa zela aldarrikatu zuen, eta batasuna bi oinarriren gainean altxatzea proposatu zuen: behar ez denean, ez asmatzea; eta behar denean ahalik eta gutxien asmatzea. Eta euskara ikastea. Hizkuntza ondo jakin ondoren hiztunak berez daukan intui-

zioa besterik ez zela behar pentsatzen zuen Txillardegik. Arazoa zen garai hartan artean ez zegoela nahikoa jakintza ondorioztatzeko zein izan behar zuten euskara batuaren oinarriak.

Garai hartantxe, 1959an, Gabriel Aresti poeta berritzailea izan zen, XX. mendeko euskal literaturagile eragingarrietako bat, eta poema hartan egitura berriko euskara erabili zuen, euskara batua izango zenaren oso antzekoa. "*Bere aginekin eman zidan dolore / kolore denetan: gorri, beilegi, more / ikusten bainizkion begi biribilak / gutziarekin, bere hegal zimelak / ebaki zizkidan tenorean kordelak / geldi- diro libratu- rik nire orkatilak*". Joskera, aditzen erabilera, ortografia bera... poema hori askoz ere hurbilago dago gaur egungo poesiatik 50eko hamarkada-koetatik baino. Nola azaldu hori? Bada, batua ez zutelako ezerezetik sortu. Ez zutelako asmatu, batek baino gehiagok orduan eta orain ere defenditzen duen bezala: euskara batua euskal literaturan indarrez ongi hornitua ageri zen tradizioaren bidez heldu zelako. Aresti izan zen, hain zuzen ere, Euskaltzaindiari eskatu ziona batuaren inguruan bilkura berezia egiteko. Batuaren aldeko aldarria gero eta ozenagoa zen. Eta Euskaltzaindiak erabaki zuen amuari heltzeko garaia iritsi zela.

60ko hamarkada erabakiorra

1960ko hamarkada izan zen erabakiorrena. Ikusi dugu batuaren kezka hainbat egilek izan dutela historian zehar, baina kontrako jarrerak ere oso gogorrak zirela. Ikusi dugu, halaber, ez zela inoiz lortzen gisa honetako lanari ekiteko behar den gutxieneko adostasuna; ez zegoela erakunde sendorik hori guztia bultzatzeko; ez zegoela horretarako nahikoa jakintzarik ere. Estandarraren beharrez konturatzen zirenek ere ez zuten baldintza egokirik inoiz ikusten...

60ko hamarkadan, ordea, hori guztia bazegoen.

Lehenengo eta behin, Euskal Herrian giro politikoa asko aztoratu eta bizkortu zen, Francoren diktaduraren lehen bi hamarkadetako presioa apur bat arinduta. Industrializazioak ere oso indar eta abia handia hartu zuen lurralde guztietan, eta kezka politikoak eta sozialak zeuzkan gazteria sortu zen. ETA erakunde armatua 50eko hamarkadaren amaieran jaio zen, eta giro askotan Euskal Herriaren alde borrokatu beharra zegoelako ideia nagusitzen hasi zen. Hor, jakina, borroka kulturala barruan zegoen. Hainbatentzat, borroka garrantzitsuena zen.

Horregatik guztiagatik, gazteria euskarra tresna kultural eta politiko gisa ikus-

ten hasi zen. Erabilera, kasu askotan, ia jarrera politikoa izaten zen. Ikastolen mugimendua berriro martxan jarri zen, gerra osteko urteen etenaren ondotik, eta hainbat hiri eta herritan, haurrak euskaraz ikasten hasi ziren.

Jende helduak, era berean, gau-eskoletan izena eman eta alfabetatzeari eta euskalduntzeari ekin zion. Idazleak, kazetariak, kantariak, eta bertsolariak ahalik eta jende multzorik zabalenera iristeko egiten zituzten ahaleginak begi bistakoak ziren, eta kultura esparru guztiak euskarako errebindikatzeko hasi ziren. Euskal Herria bera, bere osotasunean, ez zen jada bakar batzuen gogoan zegoen asmo utopikoa. Ordura arteko *frantses euskaldunak* eta *espainolak*, ordutik aurrera Ipar eta Hego Euskal Herriko biztanle gisa ikusten hasi ziren. Herria zapaldurik eta bereizirik zegoelako kontzientzia piztu zen, eta hizkuntza zen, eta ez arraza, haren nortasunaren lehen ezaugarria. Hainbaten iritzian, ezaugarri nagusia.

Hizkuntzaren egoera aztertu eta proposamen zehatzak egiteko, 1964an Baionan lagun batzuk elkartu ziren. Han herrialde guztietako jendea zegoen, eta sentsibilitate guztietakoak. Hizkuntzalariak, idazleak, irakasleak... Zortzi hilabetez bilerak egin ondoren, proposamen bat egin zuten, zortzi orrialdetan bilduta. Bertan, ortografia arauak eman zituzten, esaterako *x* eta *tx* erabiltzea, baina *j* ere. *H*-a ere ontzat jo zuten —"nahiz euskalki batzuetan letra hau ez esan hitz egitean, idazkeran onar-

tu egiten da, *h*-a gorde duten euskalkien forma eredutzat harturik”—, baina “euskaldun askok *h* hori non dagoen ez dakitenez”, epeka joatea gomendatu zuten. Hasieran *h* batzuk, gero beste guztiak. Deklinazio batua ere erabaki zen, baldintzazko batzuen idazketa, eta zenbait aditz-joko.

Baionako taldearen lana oso garrantzitsua izan zen batasunerako. Bertan parte hartu zutenek Euskaltzaindiari horko erabakiak onartzeko eskatu zioten, eta Euskaltzaindiak erronkari heltzea erabaki zuen behingoz. Eta lana Koldo Mitxelena esku uztea erabaki zuen.



Koldo Mitxelena

Koldo Mitxelena proposamena

Mitxelena pertsona ezin egokiagoa zen horretarako. Alde batetik, euskararen fonetika historikoari buruzko tesi bikainaren egilea zen, eta aditua zen onomastikan, lexikografian eta hizkuntzalaritza historikoan. Ondo baino hobeto ezagutzen zuen euskara, ondo baino hobeto ezagutu mundu zabalean hizkuntzalaritzaren inguruan egiten ari ziren lanak eta orduan zeuden teoria berriak. Bera zen horretarako egokia, eta beharbada

beste inork ez zezakeen orduan lan hori egin. Ondoan hainbat lagun izan zituen, baina txosten nagusia berak idatzi zuen.

Idea oso garbi batetik abiatu zen. Euskalkien arteko desberdintasunak ez ziren arreta nagusia merezi zutenak, euskalki horien muinean zegoen hizkuntza bakar eta orokorra baizik. Hau da, euskarak, hain eremu txikian, seizazpi-bost euskalki eta hainbat hizkera molde baldin bazituen, hori ez zen aberastasuna, egoera ahul baten isplua baizik. Hiztunen batasunik ezaren ondorioa. Eta hizkuntzaren batasuna lortzeko, hizkuntzaren erroetara jo beharra zegoen. Enborrera. “Herriaren batasunik ezak ekarri bazuen hizkun-

tzarentzat, baita hizkuntza idatziarentzat ere, desberdintzea, puskatzea eta, azken-azkenean, baita apurtzea, birrintzea eta xehakitzea ere, hizkuntzaren batasuna izango zen euskaldun batasunaren seinale eta ondorio".

Bere proposamena erdialdeko euskalkian oinarritu zuen, "hor dagoelako gure herriaren bihotza, eta gure literaturaren kondairan halako abiadura edo joera nabari delako". Alegia, horien alde arrazoi linguistikoak eta soziologikoak paratu zituen. Alde batetik, erdialdeko euskalkia zelako, bere kokaguneagatik, gainerakoetatik hurbilena. Denentzako ulergarriena hura zen. Bestetik, bertan zegoen hitzun komunitate ugarien eta bizkorrena. Bertakoak ziren idazle gehienak, bertsolariak, kazetariak, liburugileak. Logikoa ez ezik, praktikoa ere bazen.

Bost atal zituen Mitxelenak aurkeztu zuen txostenak: ortografia, euskal hitz eta aldaera lexiko zaharrak, hitz berriak, morfologia eta sintaxia. Laburbilduz, hautapena garbia izan zen: euskarak aspaldidanik zerabiltzan eta beretuak zituen hitzak oro euskal hitzak zirela erabaki zen, hitzaren etorkia nonahikoa zela. Halaber, erdiko euskalkiei garrantzi handia eman zitzaion, baina bazterrekoetan bat egiten zuen ezaugarriarik egonez gero, horixe hobesten zen. Mitxelenak bazekien baturako bidean euskalki batzuk kalteturik geratuko zirela, hizkuntza idatziaren estandarretik urrun. Baina ezinbestekoa zela uste zuen berak. "Jakina da edozein bata-

sun saio zenbait euskalkiren kaltetan egingo dela, eta ez kalterik egin nahi delako, beste erremediorik ez dagoelako baizik".

Proposamen hura 1968ko urrian Arantzazun egin zen batzarrean eztabaidatu zen, eta "euskalkien kalte" horrek sortu zuen zalaparta handien. 1968ko batzarra oso iskanbilatsua izan zelako.

Arantzazuko batzarra

Batzarrean gazte eta zaharren arteko lehia lehertu zen. Gazteak idazle iritsi berriak ziren, euskara denetariko eta noranahiko nahi zutenak. Gipuzkoar bat eta bizkaitar bat elkartzen zirenean batak bestearekin espainolez egin behar hori ezin zuten jasan. Haiek ez zuten beste irtenbiderik ikusten hizkuntza estandarra erabaki eta finkatzen hastea baino. Zenbaitek berrogei urte eskas ematen zizkion euskarari, literatur eta kultura esparruetatik aparte segituz gero. Txillardegik berak esan zuen, "literatura-hizkuntza sortu, edo euskalki guztiak hil", ez zegoela beste irtenbiderik. "Hizkuntza bat irauteko, kultura bidean sartu behar da", esaten zuen Xabier Gereño idazleak. "Eta kultura hori idazten, liburuen bidez lortzen

da, eta gure idaztien edizioak dialektotan bananduta egiten baditugu, orain arte bezala, 30 liburu eskas urtean, eta gainera ale gutxikoak eta nekez saltzen direnak".

Irakaskuntzarako ere ezinbestekoa zen hautu hori. Euskal Herri osoan ikastolak zabaltzen ari ziren, bai eta helduen alfabetatzerako eskolak ere. Eta nahiz eta ikastola eta euskaltegi batzuetan euskalkietan irakastearen aldekoak izan, askok uste zuten irakasteko ere gutxieneko arauak finkatu behar zirela. Alegia, estandar bat erabaki beharra zegoela.

Baziren, ordea, euskararen batasunak euskalkien heriotza zekarrela uste zutenak ere. Batasuna ez zela hil ala biziko arazoa. Euskara jator askoa egiten zela hainbat liburu eta idazkitan. Arantzazu aurreko idazkiak eta iritziak kontuan hartuta, irudi luke horiek gehiengoa zirela.

Lehia hori guztia *h* letraren inguruan bildu zen.

H-ren auzia

Berez, arazo linguistikoa zen. Hizkuntzalariek ondo dakitenez, *h-a*, hau da, aspirazioa, euskara zaharrean edonon ageri zen. Arantzazuko batzarraren garaian Ipar Euskal Herriko euskalkietan oraindik bizirik zegoen, ahoskatzen zen,

eta beste euskalki zaharretan ere berdin. Esaterako Erronkariko eta Zaraitzu aldeko hizkeretan, aspirazioa egon bazela frogatuta zegoen, behiala Bizkaian eta Araban bezalaxe. Aspirazio horren lekuko idatzia ezinbestekoa zen Ipar Euskal Herriko idazle-irakurleentzat, eta hango tradizio literarioaren garrantzia kontuan harturik, Mitxelenak *h* horri eutsi behar zitzaiola proposatu zuen. Ondorioz, Hego Euskal Herriko idazleak beharturik egongo ziren ahoskatzen eta idazten ez zuten *h* hori idaztera.

Ipar eta Hego Euskal Herria batasunera erakartzeko modu bat zen, estatu- eta euskalki-mugak hausteko ahalegin bat nolabait esanda. Gazteek bat egin zuten filosofia horrekin, hura baitzen, neurri batean, haien esperantzaren oinarria, baina adineko jendeari neketsu gertatzen zitzaion *h-z* betetako idazkietara begiak ohitzea.

Gainera, askok aitzakia moduan erabili zuten *h*-ren proposamena ustezko asmo politikoak salatzeo.

Idazle batek, Luis Haranburu Altunak, honi buruz idatzi zuen. Eta pausorik garrantzitsuena emana zegoela nabarmendu zuen. "Eten dugu historikoki eta eredu bezala jaso eta jasan dugun euskara. Jaso eta jasan diot, zeren eta guri sortzean bezala egokitu zaikun euskara hau, gizaldi askoren kutsu ideologikoak heritua ailegatu zaiku. (...) Gure literaturaren kondaira euskal burgesiaren ideologia atzerakoiaren historia da. Guk jaso dugun euskara, burges ideologia

baten sostengua da (...). Urte hauetan, 1960-64, gertatu den mugimenduan, berriz, forma eta gaiaren aldetik izan da. Hizkuntzarekiko eten formalista horren sinboloa *h* dugu. Iraultza guztiak du bere sinbologia eta, historikoki bederen, *h* agertzen zaiku sinbolo plastiko bezala".

Idazki hau 1972an idatzi zuen Haranburu Altunak, baina ondo asko laburbiltzen du Arantzazura joan ziren hainbaten ideologia, eta baita askoren artean ideologia horrek sortu zuen izua ere. *H*-a zen, beraz, aurreko guztiarekin hausteko bidea, sinbolo iraultzailea.

Berez, ez zen horrenbestera. Ortografiaren azaleko erreforma baino ez zen, baina sekulakoak entzun ziren orduan: *h* hori sinbolo marxista eta elizaren aurkakoa zela, herriaren betiko uste eta asmo onen kontrakoa... Idazle askok ez zuten ulertzen zergatik batzuk horrenbeste tematzen ziren, baina arrazoiak *h*-rekin zegoela nabarmentzen da gaur egunetik begiratuta.

Funtsean, *h*-ren alde zeudenek defenditzen zuten letra hori ezinbestekoa zutela Ipar Euskal Herrikoek, eta, beraz, idatzi ere halaxe egin behar zutela. Gainera, haiek ere lehenago hainbat arlotan amore eman zuten hego aldeko usadioetara eta, lege onean, bidezkoa zen hegoaldekoek ere haien tradiziara makurtzea. Neurri handiz, zeinu sinbolikoa zen, batez ere. Bestetik, praktiko-tasunaren aldetik ere onargarria zen. Iparreko eta hegoko literaturari ber-

dintasuna eta erraztasuna zekarkion, hainbat hitz logika handiagoz idatzitezkeelako *h*-rekin. Esaterako bokalen artekoak —*zahar, mehe, zuhur, aho, lehor...*— edo ia berdin idazten ziren hitzak —*nahiz / naiz, har / ar, hari / ahari / ari...*— bereizteko.

Kontra zeudenek zioten ahoskatzen ez diren letrak desagertu egiten direla hizkuntza guztietan, eta euskaldun gehienek *h* ahoskatzen ez zutenez, hori ere desagertuko zela azkenean. Eta idazkera zailtzen zuela, zerrenda bat egin beharko zelako, jakiteko zein hitzek zuten *h*-a eta zeinek ez. "*H* hartuta ere ez da batasuna izango" esan zuen kritikoetako batek, Lino Akesolok. "Batuetan isileko letra izango da; begietarako hor egongo da, baina belarrietarako ez".

Ipar Euskal Herrikoak amore emateko prest zeuden, beren euskara galtzeko prest, euskara salbatzearen truke

Beste batzuek uste zuten erabakia ezin zela guztien esku utzi. Norbaitek erabaki behar zuela. Jose Maria Satrustegi euskaltzainak esan zuen *h* ez zela gai erabakiorrena. "Nik ere ez dut gurasoengandik *h* hau jaso, baina ez naiz gurasoen euskerarekin geratu, hala balitz bakoitzak berean irautea izango litzateke lege, eta hemendik ez dugu hain beharrezko dugun batasunik lortuko, ez dugu elkar ulertuko.

Herria ez da epaile ona batasun gauzetan, bakoitzak berea ezagutzen du arrazoizat, eta gainontzekoen arrazoirik ez du ezagutzen”.

Eta, batez ere, Mitxelenaren itzalak jende askori sinestarazi zion hura zela onena. “*H*-zale edo *h* aurkako esan beharrean, oinarrien jarraitzaile edo berezale esatea asko hobea izango litzateke” esan zuen orduan Satrustegik. “Beti erabakien jarraitzaile. Bestela ez da batasuna egingo duen errementaririk sortuko Euskal Herrian”. Piarres Lafitte Ipar Euskal Herriko idazleen aitapontekoak ere antzera hitz egin zuen. “Euskaltzaindiak erabakiz geroz, ez dut inolaz nire iritzian tematu nahi. Guk ez badugu obeditzen, inork ez du egingo. Hizkuntza guztietan badira letra alpe-rrak, eta haien literaturan hala ere bizi dira, eta ongi bizi gainera”.

Lafitte oso garrantzitsua izan zen. Txosten guztiak irakurri zirenean, eztabaida bizia sortu zen han zeudenen artean. Orduan esandakoak irakurritz gero, baieztatu daiteke denak ohartzen zirela unea historikoa zela. Bazekitelako batasuna lortuz gero, edo behintzat arau batzuk emanez gero behintzat, euskara ez zela aurrerantzean berdina izango. Mitxelenak berak esan zuen operazioa “nahitaezkoa” zela.

Eztabaida bero-bero zegoela, batzarraren parte hartzen ari ziren ia guztiak hitz egin nahi zutelara, eta jarreraren tematzen zirela ikusirik, Lafittek hitza eskatu zuen. Eta, seguru asko, Arantzazun en-



tzun ziren arrazoi erabakiorrenak esan zituen orduantxe. “Euskara hiltzen doa. Nonbait salbatuko bada, hemen izango da”. *Hemen* esan zuenean, Hego Euskal Herrian esan nahi zuen noski. “Beraz, denok saiatu behar genuke hemengoaren alde. Hangoak eta hemengoak. Nik ez nuke *h* sartuko hemen. Gu hiltzera goaz, hiltzera doan ontzi bati ez lotu”. Ipar Euskal Herrikoak, hizkuntza klasikoaren oinordekoak, amore emateko prest zeuden. Beren euskara galtzeko prest, euskara salbatzearen truke. Une hura giltzarria izan zen.

Arantzazun bildutako asko pozik itzuliko ziren etxera baldin eta, Lafitteren hitz eskuzabalak eskertu ondoren, *h*-rena baztertzeko erabakia hartu izan balitz, baina Mitxelena bere horretan tematu zen, eta “gazteek beti arrazoi

dute" esaldi famatua bota zuen bil-
dutakoen aurrean. Eta gaineratu zuen
amore eman behar zutenak ez zirela
ahulenak, indartsuenak baizik. Alegia,
h hori onartu beharra zutela gipuz-
koarrek eta bizkaitarrek. Ibon Sarasolak
beste arrazoï bat gehiago erantsi zuen
proposamenarekin aurrera segitzeko:
"Alde honetako eta beste aldeko idaz-
lerik onenak *h*-ren alde daude, *h*-rekin".
Alegia batua bera aitzineratu behar zu-
tenek onartzen zutela arau berria.

Azkenean, ortografiaz arduratu zen
batzordearen puntu gehienei baiez-
koa eman zion Arantzazuko batzarrak,
eta *h*-ren auzian erdibide bat aukeratu
zuen: begi onez ikusiko lukeela Eus-
kaltzaïndiak letra hori bi bokal berdïn
nahiz ezberdinen artean erabiltzen has-
tea. "Horrek ez du esan nahi gorago jo
nahi dutenen saioak ez direla ongi iku-
siak izango". Hau da, gomendioa ema-
ten zuen batasunaren bidean urratsak
emateko, eta bide horretan sakontzeko.

Arantzazuko erabakiak

Onetsitako oinarritzko arauak hauexek
izan ziren.

- **Oinarriak:** "Hil ala bizikoa da eus-
kara batasun-bidean jartzea, eta

batasuna azaleko auzietan lortu
behar da, mamiari dagozkionak
gerorako utziz". Batzarrak onartu
zuen "galera batzuk" ekarriko zitue-
la batasunak, mozketa batzuk egin
beharra alegia. Ezin zela batasunera
joan inor mindu gabe.

- **Ortografia:** duda-mudazkotzat zi-
ren hainbat letraren alde egin zuten.
Esaterako *f* letraren alde, aspalditik
zectorren ustea baitzen ez zela letra
jatorra euskararen barruan. *J* letra,
halaber, idatzian gordetzea erabaki
zen, eta gero bakoitzak bere erara
ahoskatzea. *X* letra antzina Euskal
Herri osoan erabilia zelako argu-
dioarekin, onartu egin zen. *Ñ* letra,
berriz, hitz adierazkorretarako utzi
zen, esaterako *andereño* bezala-
koetarako. Bestelakoetan, aski zen
n-ren aurrean *i* bokala jartzea: *bai-
na, gainean, oinez...* *ll*-rekin, ber-
din: *oilo, ongile*.
- **Hitzen forma, euskal hitz zaharrak.**
Euskarak antzinatik bereganatuak
dituen hitzak euskal hitzak direla
erabaki zen, hitzaren etorkia no-
nahikoa izanik ere. Garai hartan giro
batzuetan oso hedaturik zegoen
gehiegizko purismoagatik egin zen
hautaketa hori. *Eliza* hitza, esate-
rako, batzuek baztertu nahi zuten,
latinezko *ecclesia*-tik zectorrela ar-
gudiatuz, eta horren ordez *txadona*
asmatua proposatzen. Bada, Mi-
txelenak ohartarazi zuen *eliza* ere
euskara zela. Batzuetan, ordea, hitz
ezberdinak zeuden esanahi bere-

koak. Horietako batzuk Euskal Herriko toki batzuetan erabiltzen ziren (esaterako *erori, hitz, nahi, prest, triku, hatz...*) eta beste batzuk beste toki batzuetan (adibidez, *jausi, berba, ele, gura, gertu, kirikino, sagarroi, eri...*). Guztiak euskal hitzak zirela erabaki zen, Euskaltzaindiak ezin zuela arbuaiatu euskal hitzik, aberastasunari begira zegoelako beti, garbitasunari baino gehiago. Eta nahiago zituelako bizi-bizirik zirauteak zaharkituak zeudenak baino. Beste kontua zen, ordea, erro bereko aldakien artean erarik hedatuenak eta ezagunenak hautatzea, hain erabiliak ez zirenak baztertuz: *ilea, gezurra, berri, utzi* edo *guraso*, kasurako, euskalki batzuetako *ulea, guzurra, barri, itzi, burraso* formak zokoratuz. Era berean, erdiko euskalkiak ardatz nagusizat hartu ziren (nafar-gipuzkera eta lapurtera), bazter euskalkiak horietarako erakarriz. Nolanahi ere, bazterrekoak bat datozenean (*urtarrila, bake, ira(tze)* edo *inurri* hitzetan bezala), erdialdeko formek (*ilbeltza, pake, garo, txindurri*) baino indar handiagoa dutela eta beraz hobestekoak direla erabaki zen.

- **Hitz berriei** dagokienez, Mitxelenak nabarmendu zuen hizkuntza bizia hitz berrien premian dagoela beti. Batzuetan bere baitatik sortzen dituela, bestetan inguruko hizkuntzetatik hartu behar direla. Bi bideak zilegi dira, eta beharrezko. Arau bakarra: ez

dago hitz asmatuetara jo beharrik baldin eta, aurretik, kontzeptu horretarako aspaldiko euskal hitz zaharrik badago, horiek erdaratik hartuak izan arren. Alegia, ez da zilegi euskarak etxeko bihurturik dituen hitzak baztertu eta ordezkatzea, horien lekuan hitz berriak alferrik sortzen ibiltzeko. Hala ere, euskarak, munduko beste edozein mintzairak bezala, indar ernagarria dauka lexikoa aberastu eta hitz berriak sortzeko, behar izanez gero. Esaterako, atzizkien eta hitz elkarketen bidez *–luze-luzatu-luzera-luzagarri-luzamendu...*—. Kasu horietan, gure hizkuntzak, batez ere, atzizkiak erabiltzen ditu (*–garrri, –ki, –kor, –kuntza, –le, –pen, –tasun...*), eta kasu batzuetan aurrizkiak ere bai (*aurre-, atze-, berr-, des-, goi-...*), inguruko hizkuntzetakoak bezain ugariak ez izan arren. Euskarak ez du, esaterako, latinaren *ad-, ab-, co-, de-, dis-*, eta gisakoak. Beraz, hitz berriei dagokienez, nondik jo erabaki baino lehen gauzak ondo pentsatu behar zirela uste zuen Mitxelenak. Eta, ahal denean, gure harrobitik asmatzea hobetsi zuen, esaterako *gizarte, lanabes, irizpide, menpekotasun...* Baina, beste kasuetan, gainerako hizkuntzek egiten duten bezala, nazioarteko ereduak aintzat hartu behar zirela uste zuen. Hitz kultuei dagokienez, grafiaren erraztasunari hobeki zeritzon (*filosofia, matematika, psikologia*), ingelesea, frantsesa edo

alemanaren idazkera etimologikoari baino (*Philosophie, Mathematik, Psychologie...*). Eta irizpide hori nagusitu zen.

- **Morfologia.** Euskal gramatikaren bi sail ukitu zituen: deklinabidea eta aditz-jokoa. Aditz jokoa dela eta, Mitxelenak uste zuen ez zegoela aditz batuaren jokatzeko osoa egiterik, baina handik urte gutxitara Euskaltzaindiak beste talde bat osatu eta huraxe egin zen.
- **Joskera.** Euskal idazle klasikoek joskerari begiratu eta handik ikastea gomendatzen zuen.
- **H letra.** Mitxelenak uste zuen bi bokal berdinen artean erabili behar zela, esaterako *ahari* edo *mahai*. Baita bi bokal ezberdinen artean ere, zernahi direla: *aho*, *behar*, *ohe*, *nahiz*. Horrek erakutsi zuen, gainera, nahiz eta zenbaitek irakurri ez, euskal hitzak zenbat silaba izan behar dituen. Mitxelenak proposatu zuen, era berean, bokalen artean aspirazioa hobestea, eta ez aspirazioaren ordez ager daitekeen *g*. *Egun*, *ehun*-en ordez,

edo *legor*, *lehor*-en ordez. Hitz hasieran noiz jarri behar den erabakitzeke, hiztegi ortografikoa eskatu zuen.

Arantzazuko bilera hartan euskara estandarerako oinarriak jarri ziren. Ez soilik han egindako lanagatik: lehenagoko txostenak ere oso garrantzitsuak izan ziren horretarako. Baina *h*-ren auziari sinbolikoki indar handia eman zitzaion eta borroka horretan Euskaltzaindia garaile eta indarberriturik atera zen Arantzazutik. Orduan lortu zuen itzala handitu besterik ez da egin orduz geroztik. Euskalgintzan aritzen ziren erakunde orok ikusi zuten bazegoela erreferentzia sendoa, eta 1970etik aurrera hartu ziren erabaki estrategiko ia guztiak arau berrien arabera hartu ziren. Irakaskuntzan ari ziren irakasleek euskara batu berria besarkatu zuten, eta euskalduntze-alfabetatzerako herri mugimenduak ere bere egin zuen onartutako sistema berria. 80ko hamarkadan osatu zen Eusko Jaurlaritzak indar politikoa eman zion hizkuntzalariek eta idazleek onartutako bideari, eta euskara batuaren arrastoan sartu zela esan daiteke.



ARANTZAZU ETA GERO

1970ean, hau da Arantzazuko batzarra egin eta bi urtera, euskaltzainburu berria aukeratu beharra zegoen. Frantziskotarren santutegian hartutako bidean sakondu nahi zutenek Luis Villasante proposatu zuten euskaltzainburu, Manuel Lekuonaren ordeaz.

Villasante gizon apala zen, argia eta jantzia. Batasuna zuen kezka, eta Euskaltzaindia zeregin horretan jarri nahi zuen. Lekuonak itzal handia zuen euskaltzainen artean, baina jarrera epela batasunaren inguruan. Euskaltzaindiak neutral jokatu behar zuela uste zuen, ez *h*-ren alde, ez kontra. Eta berak gabe idazten segituko

zuela zioen. Arantzazuko batzarra amaitu ondoren, behintzat, ez zuen gogo handirik erakutsi han gauzatu zen iraultzaren aurrean. "Euskera *teorian* batu degu, laburtu degu, errexu degu. Euskera elementala sortu degu: errexago idatzi dedin, errexago irakurri dedin, errexago ikasi dedin. Idatzi, irakurri, ikasi... Ortan dago orain lana".

Lekuona ez zen gogorik gabe zegoen bakarra. Hurrengo urtean, 1970ean, Arantzazun hartutako erabakiaren kontrako erreakzio handia antolatu zuten estandarraren aurkakoez, Lekuonaren gainean presioa eginez,



Bergarako Biltzarra (1978): Ezkerretik eskuinera, Jose Maria Satrustegi, Koldo Mitxelena, Luis Villasante eta Jose Luis Elkoro Bergarako alkatea.

harik eta euskaltzainburuak atzera egitea erabaki zuen arte. Mitxelenarenaz gain, beste iritzi gehiago entzun beharra zegoela sinetsirik, inori aurretik ezer esan gabe proposamen bat aurkeztu zuen: Arantzazuko akordioak berriro aztertzeko batzorde bat izendatzea, eta Mitxelena batzordetik kanpo uztea. Proposamenak ez zuen aurrera egin, baina kezka handia eragin zuen, batuaren aldekoek ikusi zutelako zirt edo zart egiteko garaia zela eta haiek ere bat egin behar zutela.

Eta 1970eko uztailaren 29an, Arantzazun hartutako bide hartatik aurrera jarraitu nahi zutenek Luis Villasante aukeratu zuten euskaltzainburu, Manuel Lekuonaren orde. 11 euskaltzainek eman zioten botoa Villasanteri, eta hiruk Lekuonari.

Villasanteren sarrera hitzaldian hautua garbi zegoela antzeman zen. "Euskera zaindu eta lantzeko: Euskaltzaindia horra zertarako den. Hau da hunen eginkizun bakarra. Euskeraren ona, euskeraren iraupena eta osasuna eragin, euskera gaur eguneko eginkizunetara tresna zauli eta egoki bihurtzea. Hartarako behar diren bideak bilatu eta arauak eman. (...) Eta bi erresumen mugen gaintetik, euskaldun guztien artean, mugaz hango eta hemengoan artean, lokarri bat izan behar du. Eta ahal bada, eta ahal diteken neurrian, guztiontzat literario hizkuntza bat muntatzen bermatu eta enseiatu".

Buru berriak horixe izan zuen buruhauste, eta Arantzazun onartutako irizpideak oinarri hartuta, euskara batua finkatze bidean jartzeko egin beharreko urratsak emateari ekin zion Euskaltzaindiak. Esan daiteke Villasanteri esker ezarri zirela

Arantzazun hitzartutako arauak. Edo, hobeto esanda: Arantzazuko gomendioak Villasanteren garaian arau bilakatu ziren.

Horretarako, hartu beharreko erabakiak ganoraz hartu ahal izateko, orduan zeuden aditu onenez inguratu eta haiekin eginbeharreko guztietarako azpiatzordeak antolatu zituen euskaltzainburuak.

Hasteko, ortografia alorreko arau batzuk onartu ziren. Esaterako:

- Galdera eta harridura zeinuak esaldiaren amaieran baizik ez jartzea.
- Apostrofea letraren bat kentzean besterik ez ipintzea.
- Marratxoaren erabilera arautu zen.
- Hitz elkartuak eta zenbait partikula idazteko modua zehaztu zen.
- Ez- partikula adizkietatik bereiz idaztea.
- Ba- beti aditzari lotuta idaztea

Ortografiaren gaineko ukituak gora behera, berriro ere poliki joatea nahiago izan zuten euskaltzainek, eta hamar urteko epea erabaki zuten, emandako arauak betetzen ote ziren ikusi eta zein arazo zeuden aztertzeke. Hamar urteko epe horretan, nolana ere, hainbat erabaki hartu ziren. Horien arteko garrantzitsuena, aditz laguntzailearena. Hura baitzen benetako korapiloa.

Aditz laguntzailearen erabakia

Gai hori ordura arte sekula ukitu ga-bea zen, Mitxelenak berak oraindik goizegi zela uste zuelako. Funtsezko erabakia zen, aditzean zeudelako, egon ere, euskalkien arteko ezberdintasunik handienak.

Beste alor batzuetan hartutako bideari jarraitzekotan, euskalkiak sortu baino lehenagoko euskarara jo beharra zegoen, baina hori ezinezkoa zen, hizkuntzalariek ez baitzekiten orduko aditz-sistema zein zen, eta ezagutzen zutena jada premia berrietarako zaharkitua egon zitekeelako. Euskalki bateko aditz-jokoa hartu eta besteak baztertu, beste irtenbiderik ez zegoen beraz. 1973an bertan eman zen erabakia: erdialdekoa hartu zen oinarritzat, gipuzkera-goinafarrera, lapurteraren ukitu batzuekin. Hau da, eremurik zabalenean eta hiztunik gehienek erabiltzen zituzten aditzei eman zien Euskaltzaindiak lehentasuna. Hori ezinezkoa zenean, Euskal Herriko erdigunekoak eta literaturan tradizio sendoena zutenak hartu ziren aintzat. Handik lau urtera aditz trinkoak ere erabaki ziren.

Batasunaren kontrakoen erronka ez zen eten hala ere. 1973an, euskal liburuak argitaratzen zituzten 11 argitaletzek

eskatu zioten Euskaltzaindiari, "nahas-keta sortu dela eta, Arantzazu aurreko ortografia erabiltzea erabaki eta aurreko bidea indartu eta berresteko". Gutun berean, Arantzazu aurreko ortografia erabiliko zutela jakinarazi zioten Akademiari. Villasantek berak erantzun egin zien, haiek Arantzazun hartutako bideari jarraituko ziotela.

1978an Bergaran beste biltzar handi eta garrantzitsua antolatu zen, hain zuzen ere hamar urte lehenago erabakitakoak arrakasta izan ote zuen aztertzeko.

Ordura arte egindakoaren defentsa egiteko, Mitxelenak hitza hartu zuen. Eta giroa hamar urte lehenagokoa baino baketsuago eta lasaiagoa zela nabarmendu zuen. Eta hori ona zela. "Ez gara gehiegi, ez gaude jakitez jantziegiak, hizkuntza larri dabilkigu, hilaginean ez badago ere. Guztiok elkarganaturik, iritziak iritzi, eta maite omen dugun hizkuntzari begira, ahulak ahula indar



Bergarako Biltzarra (1978): Ezkerretik eskuinera, Federico Krutwig, Luis Villasante, Piarres Lafitte, Jose Maria Satrustegi eta Koldo Mitxelena.

dezake. Eta ahulen multzoak bata bestearen arrimuan, gogor egin diezaieke indartsuagoei".

Arantzazukoa neurtzen

Bergarako biltzar horretan, batez ere, batuaren inguruan hartutako erabakien onarpena neurtu nahi izan zuten euskaltzainek. Eta hainbat laguni ordura arte egindakoa aztertzeko eskatu zieten. Gizarteak Mitxelenaren proposamenak ontzat hartu zituen jakin nahi zuten Euskaltzaindiak; emandako aholkuak bere egin zituen eta bide horretan sakontzea merezi zuen. Bi hitzetan, euskara batuak eragileen onespena ote zuen neurtu nahi zuen. Horretarako, argitalpenak, irakaskuntza, alfabetatze-euskalduntzea, eta idazleen lanak aztertu zituzten, horiek baitziren, azken finean, hizkuntza literario estandarren erabiltzaile nagusiak. Horiek baitziren batuaren patua markatu behar zutenak.

- Liburuen argitalpenei dagokionez, 1967tik 1977ra bitarteko liburu ekoizpena aztertu zuen Joan Mari Torrealdai. 431 liburu, denera. Bertan, liburu bakoitzean erabilitako ortografiari, deklinabideari eta aditzari begiratu zien. Ondorioetan ikus

daitekeenez, 1967an liburuen %3,3 baino ez ziren batasunaren arabera idatzi; 1977an, berriz, liburuen %65,4 Euskaltzaindiak emandako irizpideekin bat zetozen.

- Irakaskuntzari dagokionez, irakasleen artean egin zen inkesta. Xabier Mendiguren Bereziartu izan zen lanaren arduraduna, eta Hego Euskal Herriko 570 irakasleri luzatu zion galdera batuaren gainean. Euskara estandarra erabiltzen zuten irakasleak, 1977an, %90 ziren, eta gehienak arlo guztietan gainera: mintzatzeko, irakurtzeko eta idazteko. Batua beharrezkotzat jotzen ote zuten galdetuta, %80k baietz erantzun zuten, batez ere euskararen iraupenarekin lotutako arrazoiengatik. Arazoak zein ziren galdetuta, arauen inguruko informazioerik eza azpimarratu zuten gehienek. Erabakitakoaren berri zehatzik ez zutelara, alegia. Bizkaian, hala ere, euskalkikoak eta batuko testuak, bietatik behar zirela uste zuten hamarretik bostek.
- Alfabetatze-euskalduntze irakasleei dagokionez, Andoni Sagarnak egindako inkestak ondorioztatu zuen irakasle gehienek ongi edo erdizka ezagutzen zutela euskara batua, eta hutsunerik nabariena aditzean eta sintaxian zutela. Euskara batuaz galdetuta, ia denek (%93k) uste zuten komenigarria zela, euskararen iraupenerako beharrezkoa zelako edo euskara kultura moderno baten tresna bihurtzea beharrezkoa zelako.

Arantzazuko biltzarra egin eta hamar urtera, ondorio argi eta garbia zen: euskara batuak ez zuen atzerabiderik.

- Idazleei galdetzeaz Martin Ugalde arduratu zen. 260 egileri egin zion galdera, eta 196 erantzun jaso zituen. Batuaz idazten zutenak %61 zirela ondorioztatu zuen, eta horrela idazten ez zutenen artean gehienek "herriarentzat" idatzi behar zela argudiatu zuten, edo batuaz idazteak idazketa "zaildu" egiten ziela. Kaltegarria edo artifiziala zela uste zuenik bazen. Batuaz idazten zutenen artean, arrazoi nagusia zen euskara normalizatu beharra zegoela, eta euskara kultur tresna bilakatu nahi zutela. Beste ondorio jakingarri bat: gehienak 1968an bertan hasi ziren arau estandarren arabera idazten. Haietarik hamarretik zazpi 1968tik 1970erako hiru urte horietan onartu zituzten arauak. Halaber, ia erdiak eskatzen zioten Euskaltzaindiari falta zena osatzeko. %4,6k baino ez zuten nahi 1968ren aurreko bidera itzultzea.

Ondorio argia eta garbia zen: euskara batuak ez zuen atzerabiderik. Horrela ikusi zuten gehienek. Batasunaren kontrakoek ozen hitz egin zuten Bergarako Biltzarrean ere, baina indar eta arrazoi txikiagoz. Gutxienak ziren. Oso gutxiengo txikia. Partida galduta zeukaten.

Emaitzak ikusita, Euskaltzaindiak adierazpen ofiziala onartu zuen:

1. Biltzarrerako egin diren azterketei esker, garbi ikusi du [Euskaltzaindiak], duela hamar urte, Arantzazun eskainitako batasun asmoek eta arauak izan duten baietza eta eragina.
2. Hori horrela delarik, orduan hartu zen bidetik, euskararen batasun lanak aztertzea, sakontzea eta aitzinatzea nahi du.
3. *H* letrari buruz Iparraldeko zazpi euskaltzainen lana baliozko iritzirik oinarritzat hartzen du. Horretarako hainbat lasterren argitasun zehatzagoak emango ditu.
4. Bustiduren grafia alde batetik, deklinabidea eta erakusleen formak, bestetik, aski ikertuak daudelakotz,

erabakiak hartzeko premia ikusten du.

5. Euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta landu behar direla uste du, ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz.
6. Batasunerako bidean ari diren Erakunde eta Elkarte guztiekin premiazko harremanak indartzeko nahia aditzera ematen du".

Harrigarria da idazki honen eta 1968ko baten arteko aldea. 1968koa XX. mende hasierako edozein urtetakoa izan liteke, grafia, sintaxia eta idazkerari dagokionez. Are gehiago, 1968. urte bereko bi idazkiren artean sintaxi eta ortografia aldeak oso handiak izan zitezkeen, Euskaltzaindiko nork idazten zuen kontuan harturik. Aldiz, 1978ko idazki honek gaur egungo idazkera bera du. 1978an batua egina zegoen.



ETA EUSKALKIAK?

Baina batua jaiotzearekin batera, euskaldun batzuegan ezinegon eta kezka bat ernamuindu zen herri hizkeren inguruan.

Euskara estandarrak ikastolak, komunikabideak, argialetxeak eta helduen alfabetatze-euskalduntzearen arbelak irabaztearekin batera, hitz egiteko modu bat ere sortu zuen. Batua bera paperetik mingainera pasa zen. Alde batetik euskaldun berrien eraginagatik, noski. 70eko hamarkadaz geroztik milaka izan dira euskara ikasi duten herritarrak. Gaur egun, idazle euskaldun berriak daude, irakasle euskaldun berriak, lehenakari euskaldun berriak, bertsolari euskaldun berriak... Gehienek batua darabilte eguneroko harremanetan, eta haien ekarpenaren garrantzia oraindik

oso ondo neurtu edo aztertu ez bada ere, zalantza izpirik gabe esan daiteke hizkuntzari kolore berri bat erantsi diotela. Ekarpene horrek, eta komunikabideek eta mundu gero eta globalizatuagoan ingelesak eta, oro har, atzerriko hizkuntzek duten presentzia handiaren ondorioz, euskarak aurreko mendeetan baino aldaketa bortitzagoak eta biziagoak jasan ditu azken hogeita hamar urteotan. Hainbat adituk jada ohartarazi dute gehitzen diren hiztunen hizkuntza kalitatea ez dela galtzen ari direnen maila berekoa.

Dena zaku berean sartu eta astindu ondoren, begi bistakoa da herrialde ezberdinetako biztanleen arteko hizketa molde arautu eta neutroa sortzen ari dela.

Zer gertatzen da ordea euskalkiekin? Zein da haien lekua? Zer funtzio betetzen dute gaur egungo hiztunen harremanetan? Idatzi egin daitezke? Nola?

Euskalkien prestigioa

Euskal Herrian hitz egin izan diren aldaeren arteko lehia egon da historikoki. Lehia isila izan da, soilik idazleen eta goi mailako intelektualen artean ezagutu-tako dema txikia, gehienetan ezkutuan eta ustekabeen joan dena, baina hon-darrean hitzun gehienen belarrietara ere iritsi dena.

Ez da ezohiko zerbait. Ia hizkuntza guztietan gertatu da prestigio lehia hori.

XVII. mendean, Larramendik hizkuntzen arteko aldeez idatzi zuen. Esan ohi zen paradisuan sugeak ingelesez egiten zuela, emakumeak italieraz, gizonak frantsesez, Jainkoak gaztelaniaz. Carlos V. enperadorea alemanez mintzatu omen zen bere zaldiarekin, italieraz emaztearekin, frantsesez estatu gizonekin, eta gaztelaniaz Jainkoarekin.

Euskarari buruz ere esan egiten zituzten horrelakoak. Zuberotarrena goxoak zela belarriarentzat, lapurtera handi-

nahi eta zeremoniatsua, gipuzkera zuzena eta atsegina, bizkaiera gogorra. Arturo Campionek idatzi zuen gipuzkerak oso hiztegi aberatsa zuela, baina bizkaiera eta zuberera egokiagoak zirela soilik gramatikari begiratuz gero, hainbat egitura hobeto kontserbatu omen zituztelako. Halaber, zuberera inongoa baino originalagoa eta melodiatsuagoa zela esan zuen, nahiz eta "garrantzia zientifikoari dagokionez", lapurtarra denen gainean jarri.

Denborarekin are zehatzagoa egin zen ustezko sailkapen hori, edertasunaren eta baliagarritasunaren mailaketa apertatsua. Lapurteraren barruan kostatarra zen onena, Sara, Azkaine, Donibane Lohizune eta Ziburu ingurukoak, "euskara garbiaren edertasuna dela kausa, zeina hain handirozki baita laudatua ez soilki Lapurdin, baina bai oraingo Espainiako eta Frantziako bertze euskal herrietan ere". Gipuzkoan, berriz, Beterriko euskarak hartu zuen prestigioa hiztunen gogoan; Bizkaian berriz, Markina aldekoak. "Markinakoa bestearen aldean sendoa da" idatzi zuten *Euskaltzale* aldizkarian, 1898an, "errotsua, mendi mutil halakoxe azkarra; Tolosakoa biguna, udabarriko haizea langoxe hots eztiduna, eguzki epeletan ta sutondoan hazi edo inuturiko umea legezko azalzuria; Markinakoa arra da, Tolosakoa emea; eta mutil zaharra eta neska zaharra izateko jaiok ezpaltzaz, bien ezkontzatik sorturiko seina edo haurra, munduan ez dagoen lakoxe berbeta edo hizketea izango litzake".

Onenak, beraz, erdialdekoak ziren, erditik gertuen zeudenak. Hizkera horiek euskaldun guztientzako hizkuntza eredu bilakatu ziren, eta horrek garrantzi handia hartu zuen gero, indar bateratzaileak izan zirelako eta, hizkuntza estandarra sortzeko orduan, ondorioak izan zituelako.

Alde makurra ere bazen: batzuk loria-tu eta aupatuz gero beste batzuk gutxietsita eta azpiratuta geratzen ziren. Eta bertako hiztunak auzo lotsa senti zezakeen beren mintzamoldeaz. Hori xe gertatu zen: bizkaieraz egiten den Gipuzkoa aldeko elizetan Beterriko gipuzkeraz ematen hasi ziren predikuak. Luis Villasante euskaltzainak aipatu zuen Oñatin, esaterako, jendea bere hizkerarekin lotsatzen zela, eta hitzaldietarako eta liburuetarako beti Tolosa aldeko euskara erabiltzea eskatzen zuela. Eta Oñati ez zen hori gertatzen zen leku bakarra.

XX. mendean bertan hainbat ahots altxatu ziren, bizkaiera, gipuzkera eta lapurtera, guztiak zirela euskara eder, baina lekukotasun ugari daude ustez zoldarik gabeko hizkuntza ezinago egoki horietatik kanpoko hiztunen barne ahalkeaz. "Bizkaitarrak lotsatu egiten dira euren euskaraz. Bizkaitik irteteko gauza ez dela ikusirik, erdararantz bultzatuak sentitzen dira".

Bizkaian gertatu zen, batez ere. Nafarroan euskarak izan duen atzerakadak hiztun kopuruaren garrantzia nabarmen gutxitu du, eta gipuzkeratik askoz gertuagoa dago, gainera, bizkaiera bera baino. Iparraldean ere, lapurteraren eta barrualdeko nafarreraren arteko bateratze prozesua gertatu da. Zuberoan, 10.000 hiztun inguru baino ez dira.

Baina Bizkaian, batez ere XX. mendearen hondarrean, alderantzizko joera azaldu zen bizkaiera euskalki jaso eta prestigiodun bilakatzeko. Labayru Ikastegiaren inguruan egindako ahaleginak, esaterako, interesgarriak izan ziren oso, bizkaieratik hizkuntza estandarerako edo euskara baturako bidea prestatzen lan handia egin zutelako. Leloa, hasieratik, *dakigunetik ez dakigunera* izan zen. "Zer dakigu?", galdetzen zuten. "Hitz egiten dakigu. Dakigu amak esaten duen legez esaten. Zer ikasi behar dugu? Ikasi behar dugu euskara landu bat. Ikasi behar dugu euskara estandarra. Baina has gaitezen dakigunetik". Abiapuntua izan zen idatzia ez dela hizkuntza, hizkuntzaren errepresentazioa baizik. Baina errepresentazio hori oso garrantzitsua da euskara kultura hizkuntza bilakatzeko. Tarteko bezala, Labayruk bizkaiera estandarra arautzeko lan taldeak sortu zituen, eta emaitza hor dago. Bizkaian bakarrik egin da horrelako saiakera.

Euskalkien jatorria

Orain ez aspaldi, historialari batzuek, euskalkien jatorria azaltzean, erromatarrak iritsi aurretik Euskal Herrian bizi ziren baskoiak, karistiarrak, bardulok eta austrigoiei erreparatu zieten. Leinu bakoitzaren mintzairaren ondorengoak ote ziren euskalkiak. Gaur egun onartutzat ematen den teoriaren arabera, ordea, eta Koldo Mitxelenari jarraiki, euskalkiak uste dena baino berriagoak dira. Bi arrazoi eman zituen hizkuntzalari handiak hori baieztatzeko. Argudio nagusia, euskalkien artean ageri den berdintasun handia —"egundoko batasuna"— Bizkaitik Erronkariraino, linguistikoki diferentziak axalekoak direla eta. Egitura morfologiko eta fonetiko berbera ageri da euskalki guztietan, eta euskal hiztegia ere nahiko bateratua da. Badirudi, gainera, guztion euskara hori, gaurko euskalkien etorburu arrunta, ez zela egungo gure euskalkietatik oso ezberdin. Bestetik, berrikuntza berdin ugari bide dago euskalki guztietan, eta hori ezinezkoa izango litzateke euskalkiak aspalditik zatituta egon balira. Esate baterako, latinetik etorritako hitzak modu berean egokitu ziren euskalki guztietara.

Hirugarren arrazoi bat gehitu zuen Koldo Zuazok: benetan bereziak diren euskalkiak bazterretakoak dira, hau da, Zuberoakoa, Erronkarikoa, Zaraitzukoa

eta mendebalekoa. Erdigunekoetan gutxi eta txikiak dira aldeak. Hori ere, Zuazoren arabera, ez zen horrela izango euskalkiak antzinakoak balira.

Beste era batera esanda: euskalkiek erdi aldean elkarren antz handiagoa dute; beraz, ez da antzinasuna desberdintasunak sortu dituen, elkarren arteko urruntasunak baizik.

Euskalkiak oso antzinakoak ez badira, noiz sortu ziren bada? Hizkuntzalariek uste dute sorrera VI. mendekoa baino geroagokoa dela. XVI. mendean behintzat, baziren, lekukotasun idatziek frogatzen duten bezala. Bestela, ageriko bi eten omen daude euskararen egiturari dagokionez: eten horietako batek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako euskara Nafarroatik eta Iparraldeko bereizten du, eta bigarrenak, berriz, Iparraldekoa Hegoaldeko. Zuazori jarraiki, baliteke Nafarroako Erresumaren haustura egotea horren azpian. Litekeena da XI.-XII. mendeetan herrialde euskaldunetan gertatutako antolakuntza berriak hizkuntzaren bilakaeran zerikusia izatea, eta litekeena da, halaber, orduan gertatu izana euskalkiak zatitze bideko lehen urrats esanguratsua.

Hau da, elkarren arteko gutxieneko harreman bat egon zenean, barne muga sendorik gabe, euskara bat izan zen. Herrialdea hainbat egitura administratibotan zatitu zutenean, euskara ere zatitzen edo, behintzat, desberdintzen hasi zen. Hizkuntzalari guztiek onartzen duten teoria da: erdigune poli-

tikoek batzen dituzte hizkuntzak, eta batasunik ezak, berriz, zatikatzen.

Esan behar da, nolana ere, eta azpimarratu, zatikatze hauek ez zutela inoiz oinarrizko batasunaren sena hautsi.

Beraz, zatikatzetik etorri diren euskalkiak bultzatu behar dira, ala baturantz jo behar da erregistro eta egoeraguztietan?

Euskaltzaindiaren jarrera

Euskaltzaindiari leporatu izan zaio maiz euskara batuaren alde eta herriko euskararen eta euskalkien etsai aritu izana. Euskararen batasuna helburu izanik ere, horren aurretik euskalkiak daudela. Horietatik hasi behar dela. 1979an, akademiak garbi utzi zuen bere iritzia, gero askotan berretsi izan duena: euskara hizkuntza bat da, eta ez hizkuntza asko. Ondorioz, hizkuntza osoarentzat ortografia bakar bat erabili behar da. Eta, hain zuzen ere hizkuntza bat eta bakarra delako, euskara batua erabat hizkera artifiziala eta asmatua delako uste hori ez dela zuzena azpimarratu du behin eta berrito.

1994an egindako beste adierazpen baten bidez, euskal akademiak

Euskara hizkuntza bat da, ez dira hizkuntza asko; ondorioz, hizkuntza bakarrarentzat ortografia batua erabili behar da

lagunarteko hizketan ohikoak diren laburtzapenak eta tokian tokiko fonetismo bereziak gaitzetsi zituen. Halaber, batasunerako deklinabidea eta aditz-jokoa derrigorrezkotzat jo zituen, baina euskalkietako zenbait forma ontzat eman zituen era berean. Euskara batuko eta euskalkietako sintaxi-zuzentasuna bat bera dela adierazi zuen, eta hitzen forma dialektal tradiziodunak ontzat eman zituen.

2004an, azkenik, batuaren eta euskalkien arteko eragina ona zela nabarmendu



Miren Azkarate.

zuen Euskaltzaindiak. "Euskara batuko eta euskalkietako adierazpideek, idatzizkoek nahiz hitzezkoek, elkarren aberasgarri izan behar dute: zehatzago esanda, euskalkietako formek berezko bide izan behar dute euskara batuko formetara heltzeko (...). Euskalkia erabiltzean, egoera eta eremua kontuan hartuta aukeratu behar dira formarik egokienak: eremu zabalerako, euskara batutik hurbil dauden formak, eta eremu mugatuagoetan, bertakoak ere bai". Hots, telebista nazionalaren emankizunetan, forma orokorrenak eta ezagunenak erabiltzera joko da. Herri aldizkarietan, ingurukoak erabiltzea onetsi ez ezik, komeni ere bada.


Gaur egun, hiztegiaren aldetik, Euskaltzaindiak euskalki guztietako hitz guztiak onartzen ditu, euskal altxorrekoak direnez gero, inongo hitzik baztertu gabe. Hain zuzen ere, egun lantalde bat dago euskalkietatik datozen formak Hiztegi Batuan nola txertatu aztertzeko.

Baina Euskaltzaindia beti ahalegindu da erregistroak ondo bereizten. Herriko euskara ez da euskara txarra, baina batua ere ez da euskara



Jean Haritxelhar.

artifiziala. Halere euskara herrikoia goi mailako erregistroan desegokia gerta daiteke, esaterako hitzaldi batean, komunikabideetan edo liburu bat idazteko orduan... eta, era berean, euskara batua tokiz kanpo egon liteke herri bereko ohiko hiztunen artean ahoz erabiltzeko. Erregistro horiek sailkatu eta definitzea da, gaur egun, akademiaren zereginetako bat.



BATUAREN CORPUSA

Garbi dago euskara batuaren bidea oparoa izan dela. Esaterako:

- Euskaldunen arteko ezin ulertuak gainditzeko modua ekarri du: euskara batua dakitenek ez dute batak bestearekin jarduteko nahitaez erdarara jo beharrik.
- Euskara esparru guztietara zabaldu da: irakaskuntzara, administraziora, hedabideetara, literatura idatzira, Internetera... ez da, dagoeneko, etxe edo herri barruko ahozko jarduneko mintzaira soila.
- Euskarak, bizirik iraungo bazuen, ezinbestekoa zuen haztea eta zabaltzea, eta euskaldun berrien kopurua asko handitu da batuaren oinarriak ezarri zirenetik.
- Euskararen mugak desagertu egin dira. Euskara ez da, dagoeneko, menderik mende geroz eta txikiagoa eta geroz eta muga estuagoak dituen hizkuntza, irakaskuntzari esker Euskal Herriko lurralde guztietara zabaldu delako.
- Hizkuntza eta Herria bere osotasunean ikusten hasi gara. Ez

gara, dagoeneko, soilik nor bere euskalkira eta bere herrialdera begira bizi.

- Eta, batez ere: euskara benetako hizkuntza izan dadin bidea jarri da. Jada ez da euskaldunek berrek ere ulertzen ez duten dialekto sorta. Hizkuntzek izan ohi duten prestigioa bereganatzeko urratsa egin da. Prestigio, ez gainontzeko dialektoekiko, noski, hizkuntza menderatzaileekiko baizik. Euskara batuak hizkuntza menderatzaileak esklusibotasunez betetzen / hartzen / jaten / irensten zituen esparruak bereganatu ditzake.

Arrakasta horren arrazoiak hainbat izan daitezke:

- Euskara hiltzorian zegoen. Bertan behera utzi edo hari bizitza ematea zen irtenbidea, eta ahalegin guztia egin zen bizitzaren alde. Diktaduraren gogortasunak berak bultzatu zuen jendea erresistentzia horretara, diziplina handiz onartu baitziren erabaki gehienak.
- Garai hartan euskara suspertzeko abian jarri ziren ekimen gehienek —ikastolek, gau eskolek, hedabideek, literaturak...— batua ezinbestekoa zuten, hori zelako erdararekin borrokatzeko modu bakarra. Euskara erdara esklusiboa zen esparruetara hedatzea nahi bazen, prestigioz eta zientziaz jantzi behar zen.

- Batasunaren egitasmoan bultzatzeko gazte belaunaldia zegoen —Txillardegia, Gabriel Aresti, Xabier Kintana, Ibon Sarasola...— eta gauzatzeko goren mailako hizkuntzalariak azaldu zen: Koldo Mitxelena. Garbi geratu zen, beraz, oso garrantzitsuak direla kanpoko hizkuntzalariak eta jakitunak, baina bertakoek erabaki behar dituztela hizkuntza baten estandarizazioaren nondik norakoak.
- Teknikoki euskara batua egoki eta zuzen egituratu zen. Izandako zailtasunak, esaterako *h*-a sartzea edo bustiduraren zeinuak kentzea, oso azalekoak izan dira, ortografiari zegozkionak.
- Gizarte eta kultur eragileek tresna berria ontzat eman eta garatu, sakondu eta doitzeari ekin zioten. UZEL elkarteak, esaterako, 1977an sortu zen, euskara berri eta mundu modernora egokitzeko helburuarekin. Hiztegi terminologikoak lantzeari ekin zion, eta 1986an Euskalterm terminologia-bankua sortu zuen, ordura arte egindako lan guztiak hor biltzeko. Gaur egun, Interneten doan kontsulta daiteke. Komunikabideek ere berehala onartu zuten Euskaltzaindiaren joera. *Yakin* (gero *Jakin*), *Argia* edo *Anaitasuna* aldizkarietan estandarren arauen arabera argitaratzen hasi ziren, eta, geroago, irratietan edo egunkari nazionaletan —*Egunkaria*-n eta, geroago, *Berria*-n—, euska-

ra batu idatziari sekulako bultzada eman zitzaien.

Corpusari dagokionez, batuaren emaitza are ikusgarriagoa da. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- **Orotariko Euskal Hiztegia.** Euskaltzaindiak lehenetsua eman zion, sorreratik, hiztegi gintzari. Eta aha legin guztiak ordura arteko literatura ekoizpenak emandako uzta bildu, sailkatu eta azaleratuko lukeen egitasmo handi eta ezinbestekora begira jarri ziren. Oinarria Resurreccion Maria Azkuek 1905ean argitaratutako *Diccionario Vasco-Español-Francés* izan zen, baina helburu berriak erabat gaiztatu zuten hura. Euskaltzaindia sortu eta hurrengo urteetan, hamarkada batez, euskaltzainak hiztegiak hitz eta adiera berriak ekartzeaz arduratu ziren, Azkueren hiztegi handiak jaso gabeko hitz eta adierak, alegia. 1927an Nikolas Ormaetxea *Orixe*-k hartu zuen hiztegia osatzen joateko ardurak, baina gerrak etena ekarri zion asmo erraldoi hari. 1959an Koldo Mitxelena jaso zuen lekukoa, eta 1982an, berriz, Ibon Sarasolak. Lehen liburukia 1987an kaleratu zuen Euskaltzaindiak. Eta azkenak, hamaseigarrena, 2005. urtean plazaratu zuen. Berez, hiztegi deskriptiboa eta historikoa da Orotariko Euskal Hiztegia (OHO), ez arauemailea. Helburua euskararen hitz-ondarea jasotzea da, eta garai, toki eta mota guztietako euskal hitz-ondarea bil-

du du bertan. Euskal idazleak, mende eta euskalkietan zehar, zein hitz eta esapidez baliatu diren eta nola baliatu diren ahalik eta osokien eta zehatzen azaltzea da bere helburu nagusia. Ia hirurehun liburutatik jasotako corpusetik lau milioitik gorako hitz-altxorrean oinarritutako hiztegia da. 125.987 hitz bildu ditu.

- **Hiztegi Batua.** Orotariko Euskal Hiztegia bideratzen eta argitaratzen hasi zenean, hiztegi gintza arloko beste lan nagusiari ekin zion Euskaltzaindiak: euskara batuaren oinarritzko hiztegiari, Hiztegi Batuari. Horretarako batzordea 1992an hasi zen lanean. Bere egiteko nagusia euskara batuaren oinarritzko hiztegia bideratzea da. Idazleek eta batu dituztenak bere hartan berretsiz eta, batasunik ez dagoenean, batasun hori nola lor litekeen ikusiz: oinarrian idazleek erabilerak ezagutzea datza, tradizioko ondarea eta oraintsuagoko ekarriak ezagutzea. Euskaltzaindiak bigarren itzuliko hitz edo formak onartu, osatu eta argitaratzean, guztira 40.000 hitz inguru izango ditu Hiztegi Batua.
- **XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa.** 4.600.000 hitzez osatuta, mende horretan erabiltzen zen eta erabiltzen den euskararen lekuko eta erakustoki izatea du xede, ez ereduak hizkuntza proposatzea. Horretarako, XX. mendeko euskal argitalpenen inbentario osoa egin da, irizpide zehatzen arabera

sailkatua eta sail bakoitzaren lagin bat hartuta. Corpus irekia da, urtero eguneratzen da, eta hor euskara idatzia jasotzen da. Orotariko Euskal Hiztegiaren corpusaren osagarri izatea helburu zuen corpus hau amaitutzat eman zen 2000. urtean.

- **Beste hiztegiak.** Zientzia eta Teknika Hiztegiak, Euskal Hiztegi Historiko eta Etimologiko egitasmoa, eta beste hainbat hiztegi bideratzen ari da Euskaltzaindia. Horrez gainera, hainbat erakundek tokian tokiko hiztegiak eta hiztegi bereziak argitaratu izan dituzte azken urteetan.
- **Gramatika.** Euskaltzaindia 1960an hasi zen euskal gramatika egiteko ahaleginean, eta 1979an Gramatika batzordea osatu zuen. 1982an ekin zioten *Euskal Gramatika. Lehen urratsak* izeneko egitasmo erraldoiari. 1985ean argitaratutako 500 orritik gorako liburuan izen sintagmak, izena, izenordainak, determinatzaileak, adjektiboak, izenlagunak eta abar aztertu ziren. 1984an, berriz, aditza aztertzen hasi ziren. 1987an argitaratu zen bigarren liburua. Hurrengo urteetan, beste bost liburu argitaratu dira gramatikaren inguruan.
- **Euskararen Herri Hizkeren Atlas.** 1987tik 1992ra Euskal Herri osoko 145 herritan egindako inkestako grabaketek osatzen dute Atlasaren corpora. Guztira, 4.200 grabaketa ordu. Herri guztietan 2.762 galdera

egin ziren, eta, horiez gainera, itsas bazterreko herrietan beste 222 galdera, itsas biziari buruzkoak. Horrekin lotuta dago Ahozko Tradizioko Hizkeren Corpusaren egitasmoa, 2007tik abian dagoena. Helburua da ahoz transmititutako edukiak gorde, sailkatu, era selektiboz transkribatu eta ondoko ikerkuntzetarako oinarritzat eskaintzea.

- **Onomastika.** 1920an Euskal Herriko auzo sarbideetan jarritako izenak egoki ote ziren kezka agertu zuenetik, Euskaltzaindiak etengabeko lana egin du toponimia eta leku izenak biltzeko. Hainbat ahaleginen ondoren, 1971n herrien izendegia osatzea erabaki zuen akademiak, eta handik zazpi urtera Udalen Izendegia amaitu zuen. Herrien izendegia bezala, pertsonen izendegia ere egiteko asmoa izan zuen hasieran Euskaltzaindiak. Eskutitz baten bidez, 1932an "bikario jeneral Etxeguren jaunak" Akademiari galdetu zion zer izen zen egokiagoa, Josu ala Jesus, eta euskal izenen lana bere gain hartzea erabaki zuen erakundeak. 1972an *Euskal Izendegia*-ren lehen bertsioa kaleratu zuen. 1983tik aurrera herri izendegia, pertsona izendegia, toponimia lanak, izen ikerketak, eta diktamenak lantzeko Onomastika batzordea jaio zen, eta *Onomasticon Vasconiae* bilduma abiatzea izan zen lehen lana. Harrezkero, 1986tik 2009. urtera bitarte, 28 liburu argitaratu dira. Halaber, Zuberoako

herrien izendegia onartu zuten 1998an, gero Lapurdikoa (2000), Nafarroa Beherekoa (2004), Gipuzkoakoa (2004), Bizkaikoa (2005), Arabakoa (2006ko martxoa) eta azkenik Nafarroakoa (2006ko abendua). Era berean, *Euskal deituren izendegia* (1998) eta *Euskal izendegia. Ponte izendegia*

(2001) lanak kaleratu dira. Laster, Euskal Corpus Onomastikoa izango da eskura, onomastika-lekukotza dokumental guztiak datutegi bakar batean biltzeko egitasmoa. Ponte-izenak, deiturak, toponimoak eta exotoponimoak izango dira bere ataletan.



BATUAREN ONDORIOAK

Gaurko ikuspegitik, euskalgintzan eta euskal kulturaren inguruan aritzen diren ia denek onartzen dute egindako bidea ezinbestekoa eta onuragarria izan dela dudarik gabe. Kontuan hartu behar da hizkuntza guztiek, jatorriz, dialektoak edo tokian tokiko hizkerak dituztela. Egoera naturala hori da. Biak, hizkuntza komuna eta dialektoak dira onak eta naturalak, biak jakin beharrekoak, baina biak esparru eta egoera ezberdinetan erabiltzekoak.

Baina ondo eta zuzen egin zen bidea? Ondo hartu ziren hartu beharreko erabakiak? Euskara pobretu egin da, Manuel Lekuona euskaltzainburuak iraga-

rri zuen bezala? Tokian tokiko hizkerak galtzaile atera dira? Batua, nahiz eta beharrezkoa izan, hizkuntza arimarik gabekoa da, artifiziala, hainbatek profetizatu zuten bezala?

Euskara estandarra inork bultzatu bazuen, hori Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardeg*i izan zen. 1958an irakurri zuten *Batasunaren bidea* izeneko idazkia horrela hasten zen: "Batasunik ez daukagu euskaltzaleok: denak ikusten dute au. Inork ez du ukatzen. Amaika talde dago gure artean, amaika istillu, amaika etsaigo. Agirian dago au, eta denok aitortzen. Gure anarkia ori buka dedin nahi dutenak, berriz,

gutxiago dira". *Anarkia* hitza aipatzen zuen Txillardegik Euskaltzaindiaren batzarraren aurrean irakurri zuen eskutitz ireki horretan, eta *anarkia* errepikatu zuen behin eta berriro hurrengo urteetan. Idazki horretan bertan ikusten da batuaren aurreko ortografia irizpiderik falta: *h*-rik gabeko hitzak, gaur egun gramatikalki zuzenak ez diren egiturak...

Txillardegik Parisen ikasi zuen, eta Bilbon Federico Krutwig ezagutu zuen. Hura izan zen, Txillardegik dioenez, euskara batuaren beharraz konbentzitu zuena. "Krutwig hasi zen batua behar zela eta. Bera jatorri alemaniarrekoa zen, nahiz eta Getxon jaioa izan. Bere hizkuntza alemana zen, eta Luteroren eragina zeukan, hark egin baitzuen aleman estandarra. Eta berak esaten zuen guk hemen genuela Leizarraga, Luterok bezala Biblia euskarara itzuli zuena, eta haren eredia hartu behar genuela euskara batzeko".

Krutwigek Txillardegiri sinestarazi bazion euskara batua beharrezkoa zela, kultur hizkuntza guztiek bide hori egin zutela, Txillardegi izan zen, bere aldetik, euskaltzain asko bultzatu zituena bide horretatik jotzeko. "Gu konturatu ginen ez zela posible gertatzen zena. Iparraldeko bat elkartu Bizkaiko batekin eta azkenean erdaraz amaitu. Edo lapurtar eta zuberotar bat elkartu eta frantsesez egin beharra elkarrekin. Guk ikusten genuen behar beharrezkoa zela batua, intuizioz. Gero jakin genuen hizkuntza askotan batasun bide hori egina zego-

Txillardegi: 'Intuizioz ohartu ginen batua beharrezkoa zela, ez zela posible bi euskaldun elkartu eta erdaraz hitz egiten amaitzea'.

la". Egin zuen zerrenda bat, eta ehun bat laguni igorri zien, haien iritzia jasotzeko. Eta iritzi horiek guztiak batu eta talde bat osatu zuen Txillardegik. Baionan 60ko hamarkadaren hasieran biltzen hasi, eta bilera horietan batuaren lehen irizpideak finkatzen hasi ziren.

"Batua Txillardegiren kontua da" berretsi du Ibon Sarasolak. "Mitxelenak gero baiezkkoa eman zion, baina ideia harena izan zen". Mitxelenak berehala ikusi zuen idazle gazteen kemena zela euskarak behar zuena. Arauak eskatu ez ezik, itsu-itsuan arauak betetzeko prest zegoen belaunaldi bat behar zuela hizkuntzak, aurrera egin nahi bazen. Soziologikoki mirakulu bat behar zela, eta begiratu behar zietela gazteei, nola zetozen. Eta gazteak indartsu zetozen.

Horixe zen behar zena. Gazteen bulkada. "Intuizioz egin zutela dio Txillardegik, haiek ez zekitela asko araudiaz eta corpusez, baina ez da asko jakin behar!" nabarmendu du Sarasolak. "Egin behar dena da usaina hartu, hizkuntzak idazleek egiten dituztelako. Zenbat eta filologo gutxiago egon, gauza horiek are hobeto ateratzen dira". Txillardegi ez zen egon Arantzazuko 1968ko batzarrean, atzerrian ihes eginda zegoelako, baina

Sarasola bai, eta hurrengo hamarkadetan Mitxelena eratzeko orduan. Berak zuzendu du Orotariko Euskal Hiztegia eta Euskara Batuko lan taldeko kide izan da hainbat urtez. Batuaren bide hori ondo egin dela uste du berak.

Xabier Kintana askok kritikatu zituzten gazte horietako bat zen. Euskara bizia eta baliagarria nahi zuen horietako bat. Pobretu ez ezik, euskara aberastu eta finkatu egin dela uste du, zalantzarik gabe. "Zer da aberastasuna? *Ekarri dut* esateko, *ekarri dot*, *ekarri det*... izatea? Lehen modu askotara esaten zena orain modu bakar batez esatea, hori ote da pobretzea? Nire ustez, ez. Bestea egoera tribala zen. Hizkuntzalarien ikuspegitik, *dot* eta *det* eta aldagai dialektal horiek baliagarriak dira hizkuntzaren jatorria eta eboluzioa aztertzeko, baina hiztun normalari ez dakarkiotu probetxurik bat ere, eta bai elkar aditzeko zailtasuna. Nik delako aberastasun horretan ez dut sekula sinetsi. *Gizonarekin*, edo *gizona-gaz*, hori sinonimia da. Aldaketa horiek literaturari aberastasuna eman diezaiokete, *jausi* eta *erori* bezala, edo *ilki* eta *atera* bezala. Ni ere horien alde nago, eta batasunak ez ditu horiek ito behar, baina planifikazio bat eginez gero, horiek ez dira maila berekoak".

Horixe izan zen eztabaida nagusia. Baina gazteek bultzatu eta, batez ere, Mitxelena bezalako hizkuntzalariak idazle berrien kemenari babesa eman eta logikazko eredu planteatu zuenean, batuak uste ez bezalako indarra hartu

Ibon Sarasola: 'Egin behar da usaina hartu, hizkuntzak idazleek egiten dituztelako; zenbat eta filologo gutxiago izan, gauza hauek are hobeto ateratzen dira'

zuen. Bultzatzaileak ere harriritu geratu omen ziren.

"Mitxelena esan zuen berak ez balu indarririk ikusi gazte jendearen artean, idazleena batez ere, bera ez zela sartuko" gogoratu du Sarasolak. "Eta dena oso ondo onartu zen. Mitxelena ez zuen inondik ere espero aditzaren batasuna hain azkar onartuko zenik. Diziplina egon zen, dudarik gabe, baina jendeak ikusten zuelako zer zegoen jokoan! Hemen jendea ohartu zen hizkuntzarentzako azkeneko trenaren azken bagoia zela. Hartu, edo kito. Eta jendeak hartzea erabaki zuen".

Sarasolarentzat ere euskara aberatsagoa da gaur egungoa, dudarik gabe. "Ez dago kolorerik. Eta uste dut aberatsagoa izango dela gainera, eta kolore gehiago izango duela. Eta gauza batzuek, sentitzen dut, baina desagertu egin beharko dute, toki guztietakoak desagertu diren bezala. Espainiarrek 500 urte daramatzate hizkuntza batuarekin, eta hitz batzuk galdu dira, desagertu dira. Seinale ez zirela beharrezkoak. Hitz bat galtzen bada, galdu behar zen hitza delako galtzen da".



ESTANDARIZAZIORAKO GOMENDIO BATZUK

Mitxelenak esaten zuen hizkuntzalariak direla hizkuntzen batasunaren etsairik amorratuena, eta ez zela harritzekoa, nahiago zituztelako beti basa landareak inoren eskuz landatuak baino. Eta garbi dago ez dagoela hizkuntza baten geroa aldeztu aurretik erabakitzerik. Izan dira ahaleginak, ahalegin sendoak, hizkuntzak biziberritzeko, nabarmen huts egin dutenak. Irlandako gaelikoarena, esaterako. Baina euskararen adibidea oinarri hartuta, urrats batzuk eman beharrekoak direla ondoriozta daitezke.

- Lehen urratsa sistema ortografiko estandarra adostea litzateke. Hainbat

kasutan, sistema ortografiko ezarri ondoren egin da lexikoaren batasuna.

- Komeni da hiztunen artean bizien dauden hizkerei erreparatzea; eta, hauen artean, kontserbatzaileenei, hau da, jatorrizko forma batuak hobekien kontserbatzen dituztenei. Ez dira, hala ere, hizketa molde edo dialekto horien forma guztiak ontzat hartu behar. Italian, esate baterako, batasuna Toskanako Firenzeko italieraren inguruan egin zen, baina forma dialektal batzuk baztertu egin ziren, gainerako dialektoetan ondo kontserbatutako forma komun batzuetatik asko urruntzen zelako.

-
- Nahasketa artifizialak ez dira gomendagarriak. Hobe da arau orokor batzuk ematea. Esaterako fonetika batua ezarri, aditz-jokoa ondo proposatu, eta, hasieran behintzat, idazleei bidea egiten utzi, oinarritzko arau horien gainean beti ere. Horrela joango dira dialektoen formak eta hitzak hizkuntza batu horretara sartzen.
 - Ez dago hizkuntza edo dialekto bat bestea baino hobea denik. Denak dira besteak bezain adierazkorak eta denek dituzte gaitasun berdinak ideiak azaltzeko.
 - Estandarizazioa ez da inoiz lehiaketa bat izango. Kontsentsua eta adostasuna bilatzea da onena. Litekeena da nonbaiteko dialektoa prestigio handikoa izatea baina, hainbat arrazoi tarteko, inguruko beste hiztunen aldetik kontrako jarrera edo inbidia piztea. Kasu horietan ezin da ezer indarrez ezarri.
 - Forma batuak lehenetsi behar dira beti, hau da, dialekto guztietan bat egiten duten joskerak eta formak bilatu behar dira, eta arau berriak horien gainean ezarri.
 - Akademiek, berez, ez dituzte neologismoak edo hitz berriak sortu behar. Hori idazle edo irakasle onen lana izan ohi da.
 - Estandarizazioa ezin zaio ideologia zehatz bati lotu.
 - Estandarizaziorako bidean, hizkuntzaren testuak edo corpora biltzeko lana aurreratu daiteke. Hizkuntzaren dialektologia-hiztegia ere gomendagarria da, jakiteko dialekto edo aldaera bakoitzaren egitura, jatorria, eboluzioa, ezaugarriak... Hizkuntzaren gramatika ere beharrezkoa da, eta folkloreakin lotutako elementuak biltzea gomendagarria da.
 - Hizkuntza autoritatea adostea onuragarria da. Hau da, hizkuntza gaitasuna ez ezik, lanerako borondatea eta hizkuntzarekiko maitasuna daukaten pertsonak elkartu behar dira helburuaren bila. Hizkuntza hitz egiten den herrialde guztietako jendeaz osatu beharko litzateke, gainera. Helburuak izan beharko lituzke:
 - Alfabeto eta ortografia zuzena ezartzea.
 - Gramatika batzordea osatzea.
 - Onomastika batzordea osatzea.
 - Hizkuntzaren hiztegi arauemailea prestatzea, lexiko guztia ortografia arautuaren bidez jasotzeko. Hor egon beharko lukete gehien erabiltzen diren aldaerek, dialekto txikiak bigarren mailan utzita.
 - Literatura batzordea osatzea, idatzitako lanak aztertu eta sailkatzeko.

- Dialektologia batzordea, hizkuntzaren dialektoak eta herri hizkerak aztertu eta sailkatzeko.
- Jagon edo zaintza lanerako batzordea osatzea.
- Aditz baturako proposamena egin beharko luke.



BIBLIOGRAFIA

- *Euskararen liburu zuria* (Euskaltzaindia, 1978)
- *Euskara batuaren filosofiaz* (Luis Villasante, Euskera aldizkariaren XXXIX. zenbakian)
- *Euskara aldizkaria* (Euskaltzaindia)
- *Jakin, 25 urte euskal kulturari* (1981)
- *Literatura vasca* (Jon Juaristi, 1987)
- *Historia de la literatura vasca* (Koldo Mitxelena, 1988)
- *Euskararen batasuna* (Koldo Zuazo, 1988)
- *Acerca de la normativización de la lengua vasca* (Henrike Knörren hitzaldia, 1991)
- *Euskara batuaren ajeak* (Ibon Sarasola, 1997)
- *Euskaltzaindia eta euskararen arautzea* (Patxi Goenaga, RIEV, 2000)
- *Orekan, Herri eta Hizkuntzen ekologiaz* (Xamar, 2001)
- *XX. Mendeko corpus estatistikoa* (Miriam Urkia, UZEI, 2002)
- *Euskara batua. Ezina ekinez egina* (Koldo Zuazo, 2005)
- *Loiolarik balitz* (Iñigo Aranbarri eta Jose Luis Otamendi, 2005)
- *Algunas pautas sobre la unificación; Sobre la unificación de las lenguas, el caso vasco* (Xabier Kintanaren hitzaldiak)
- *Euskaltzaindia, ekin eta jarrai* (Joan Mari Torrealdei eta Imanol Murua Uria, 2009)



Garabide Elkartea